

LEWIS CARROL

Alicen abenturak

Lurralde Miresgarrian

Itzulpena:
Gurutze Mujika

1. UNTXIAREN GORDELEKUAN

Alizia ahizparekin erreka ondoan egotez aspertzen hasia zen. Beste egitekorik ez zuelarik bere ahizpa irakurtzen ari zen liburuari begiratu bat edo beste eman zion; baina ez zuen ez marrazkirik eta elkarrizketarik. “Eta zertarako balio du liburu batek marrazki eta elkarrizketarik ez duenean?”, galdetu zion Aliziak bere buruari.

Horrela bada, lore-sorta bat biltzen hasteko zegoen, hartatik altxatzea merezi ote zuen pentsatzen ari zenean, hara non, bat-batean eta bere inguruan begi gorriak zituen Untxi Txuri bat jauzi zen.

Bere horretan ez zegoen beste munduko gauzarik, eta untxiak “Ene! ene! Berandu iritsiko naiz!” zioela entzutean ere ez zen batere harritu. Baina untxiak txaleko patrikatik erlojua atera, begiratu eta korrika hasi zenean, Alizia salto batez bere atzetik korrika abiatu zen, ez zuen sekula santan txalekoz jantzitako untxirik ikusi, eta zer egiten zuen jakin nahian zelaian zehar untxiaren atzetik jarraitu zuen. Horrela, ikusi ahal izan zuen hesi baten azpian zegoen zulo batetik barrena sartzen.

Geroxeago, Aliziak berak joko zuen bide berdinetik barrura, berriro irteterik izango ote zuen gehiegirik pentsatu gabe noski.

Hasieran untxiaren gordelekua zuzen-zuzena zen, gero bat-batean beheraka egin zuen, eta Alizia gelditu beharko zuenik pentsa ahal izateko astirik izan gabe, putzu antzeko zulo handi eta sakon batean goitik behera poliki eta emeki amildu zen. Erortzen ari zela, ordea, bere inguruari, begiak zabal-zabalik, so eginaz, han norbait bizi zela konturatu zen. Une batez, pareta haietan zeuden mahai eta armairuetatik zerbait hartzeko asmoa pasa zitzaion burutik, baina berak horrenbeste atsegin zuen Ezti potoa hartzen ez zen ausartu.

“Ene bada!”, pentsatu zuen Aliziak, “era honetako erorketa harrigarri baten ondoan eskaileratetik jausteak ez du batere garrantzirik, huskeria bat besterik ez litzateke niretzat. Zein ausarta agertuko naizen besteen aurrean! Nahiz eta teilatutik erori, ez nuke inolaz ere negarrik egingo!” (Eta hala zen, benetan).

Behera, behera eta behera. Ez ote zen ba, inoiz amaituko?

—Zenbat miliatara jaisten ari naizen jakin nahi nuke —esan zuen ozenki samar—, dagoeneko lurraren zentrotik nahiko gertu izango naiz. Ia ba, oker ez banago, lau mila miliatako sakonean aurkitzen da lurraren zentroa.

Dakusazuenez, Aliziak eskolan zenbait gauza ikasiak zituen, baina momentua ez zitzaion egokiena iruditu zekien guztia gogoratzeko, izan ere, entzun ziezaiokeenik ez baitzegoen bertan. Hala ere, errepikatzeari ekin zion errepasorako balioko zitzaiolakoan...

—Bai, horixe izango da distantzia...

Eta honela jarraitu zuen:

—Agian, lur osoa zeharkatuz beste muturrean aterako naiz! Bai interesgarria, buruz behera dabilen jende horren artean agertzea! Orduan, beren herriaren izenaz galdegin beharko diet. Etxekoandre, faborez, Zelanda Berrian, Australian, ... non gaude?

Hitzok esanez batera begirune osoz erreberentzia bat egin zuen. Airean zihoan bitartean erreberentziak eginaz! Hau dena gerta daitekeenik uste al duzue?

—Haur mukitsu ezjakina baizik ez naiz izango beraientzat! Ez, ez dut ezer esango. Nonbait idatzia egongo da segurutik.

Behera eta behera. Ez zuen beste egitekorik, eta ostera hizketan hasi zen.

—Dina gaixoa nitaz asko gogoratuko da! (Dina bere katua zen). Te hartzeko garaian bere esneaz gogoratuko direla espero dut. Dina, polita, nirekin hemen behean eduki nahi zintuzket! Airean ez dago arratoirik noski; bada ordea, saguzarren bat edo beste. Baina zuek, katuok, jaten ote duzue saguzarrik? Horrela ari zela, azkenean eta nekaturik zegoenez pixkanaka lo hartzen ari zen. Halako batean ametsetan hasi zen, Dina eskutik hartuta paseatzen ari zela irrika biziaz

galdegiten zion: “Dina, egiatan esaidazu, inoiz jan al duzu saguzarrik?”, eta bat-batean, punba!, adaxka eta orbela pila baten gainean aurkitu zen. Erorketa bukatua zen.

Ez, ez zuen minik hartu eta berehala altxatu zen lurretik. Goraka begiratu zuen, den dena iluna. Bere aurrean pasabide bat zabalik eta bertatik aurrera zihoan Untxi Txuria ikusi ahal izan zuen. Ez zuen denbora gehiago galtzerik eta haizea bezain azkar korrika hasi zen. Hala eta guztiz, bihurgune batean untxia bistatik galdu zuenean hitzok justu aditu ahal izan zizkion:

—Kontxo, kontxo, zein berandu dudan!

Bihurgunea pasa eta atari zabal eta baxu xamar batera heldu zen. Gelako sabaitik bonbilla lerrokada bat zintzilik argitan, baina han ez zegoen untxiaren arrastorik.

Atariaren inguru guztia atez betea zegoen, Aliziak, denak giltzaz itxirik zeudela ikusi zuenean, gelaren erdi alderantz jo zuen erabat tristaturik, eta nola arraio irtengo zen bera handik, berarekiko galdezka ziharduen.

Berrito begirada altxatu zuenean hiru hanka zituen kristalezko mahai baten aurrean aurkitu zen. Gainean urrezko giltza txiki-txiki bat baizik ez zegoen. Berarekin ate guztiak irekitzen saiatu zen, baina alferrik. Edo sarrailak handiegiak ziren, edo bestela giltza txikiegia. Bigarren aldiz probatzean ordea, gortinatxo bat zegoela konturatu zen, eta honen atzean bi eskuko luzera zuen atetxo bat. Urrezko giltza hartu eta sarrailaren zirrikitan ondo sartzen zela ikusitakoan izugarri poztu zen.

Aliziak atetxoa zabaldu eta pasabide estu batera ematen zuela frogatu zuen. Belaunikatu, makurtu, eta pasabidearen beste muturrean sumatu dezakezen lorategirik ederrena ikusi zen. Nolako gogoia zuen gela ilun hartatik aldegitako eta lorategiko lore koloretsuen eta iturri fresko haien artetik paseo bat egiteko! Baina atearen zulotik burua ere ezin zuen pasa. “Eta nahiz eta burua pasatu, zer?” pentsatu zuen Aliziak, “bizkarra pasa gabe buruarekin soil soilik ezer gutxi egin nezake. Zenbat gustatuko litzaidaken teleskopioaren gisan ni, neu, txikia bilakatzerik banu!”. Izan ere, Aliziari horrenbeste gauza harrigarri gertatu zitzaizkion, eta edozein gauza lortzerik bazuela pentsatzen hasia zen.

Ostera mahai ondora nahiko etsita itzuli zen beste giltzaren bat aurkituko zuelakoan edo... oraingoan, aldiz, botilatxo bat aurkitu zuen (“lehen hemen ez zegoena”, esan zuen Aliziak), eta botilaren muturrean hitz handitan inprimaturik paperezko etiketa bat, “EDAN NAZAZU” zioena.

Oso ongi dago botilan “EDAN NAZAZU” txartela ipintzea, baina Alizia gaztetxoak ez zuen, hala ere hura berehalakoan edango. “Ez, lehenbizi ikusi egin behar dut”, esan zuen bere baitarako, “ia pozoia delakoaren adierazpenik ba ote duen”. Aliziak ipuin zoragarri asko irakurriak zituen eta berak bazekien ipuin horietan zuhur jokatu behar zuen zenbait haurrek beren hezitzaileek irakatsitakoari kasu ez egiteagatik oso gaizki pasa behar izan zuela.

Botila hark ordea, pozoia zela adierazten zuen txartelik ez zeukan, beraz, Alizia hartatik edaten ausartu zen, oso goxoa iruditu zitzaion eta ziztu batean hustu zuen dena.

—Nolako zirrara, hau bihotz-ikara! —esan zuen Aliziak—. Teleskopioa bera bezalaxe ari naiz kuzkurtzen.

Eta horrela zen, zalantzarik gabe: orain hogeita bost zentimetro neurtzen zuen, eta lorategi harrigarri hartan sartzerik izango zuela pentsatuz aurpegia irribarrez bete zitzaion. Hala ere, minutu batzuetan zain egon zen, ez zuen gehiago kuzkurtu nahi, beldurtua zegoen. “Kandela baten moduan suntsitzen banaiz...”, esan zuen bere baitarako. “Zer gertatuko ote zait?”

Azkenik, eta ez zitzaiola ezer gehiago gertatzen ikusiaz, lehenbailehen lorategira joatea erabaki zuen. Baina Alizia gaixoa!, ate ondora ailegatzerakoan urrezko giltzatxoa ahantzi zuela ohartu zen koitadua. Berrito mahaira jo zuenean ordea, bera horren txikia izanik, ezinezkoa zitzaion giltzaz jabetzea. Mahaiaren hanka batetik gora igotzen ahalegindu zen, baina alferrik, irristakorregia zen. Azkenean, etsita lurrean eseri eta negarrari eman zion gaixoak.

“Ia ba, neska! Negar egiteak ez du ezertarako balio!”, esan zuen berarekiko. “Negar egiteari bertan behera utzi behar diot!” Aliziak askotan ematen zizkion aholku onak bere buruari (gehienetan beteko ez bazituen ere), bera sarritan bi pertsona desberdin balitz bezala jokatzeko atsegin zuen. “Baina orain bi pertsona banintz modutan jokatuz ezer gutxi irabaziko nuke!”,

pentsatu zuen koitaduak. “Nahiko zaila gertatzen ari zait bat bakartzat jokatzuz!”

Geroxeago, lasaitu zenean, bere begiak mahaipean zegoen kristalezko kutxatxorantz zuzendu zituen. Ireki eta barruan “JAN NAZAZU” andere-mahatsez ederki asko idatzirik zeukan opil txiki-txiki bat aurkitu zuen”. Bada... jan egingo dut”, esan zuen, “eta hazi araz- ten banau giltza hartu ahal izango dut, kuzkur arazten banau, aldiz, ate azpiko zirrikitutik pasako naiz. Era batera zein bestera azkenik lorategian sartzerik izango dut, horixe baita azken finean neuk nahi dudana. Mokadutxo txiki bat eman zion eta urduri samar honela galde egin zion bere buruari: “Norantz? Gorantz ala beherantz?”. Aldi berean, eskua buru gainean jarri zuen aldaketa nolakoa zen igartzeko asmoz, eta harrituta gelditu zen lehengo neurria berbera zuela ikusterakoan. Egiaz, egoera normal batean opil bat jateagatik ez da ezer gertatzen, baina Alizari azken boladan hainbat gauza harrigarri gertatu zitzaizkion...

Gauzak horrela, ez zen ez kikildu eta opiltxo bat-batean irentsi zuen.

2. MALKO PUTZUA

Haren harridura! Harri eta zur zegoen Alizia. Inoiz izan den teleskopiorik luzeena bezainbat luzatzen ari zen!

—Arraioa, zer deabru ote! —oihukatu zuen (horren harritua zegoen hizketan ere ahaztu egin zitzaiola).

Eta beheraka begiratzerakoan bere hankak horren urruti ikusita:

—Agur ene oinok! O, hankatxo gaixoak, nork jantziko dizkizue orain zapatak? Nik ezin izango dut! Zuengandik urrutiegi biziko naiz, zuek bakar bakarrik moldatu beharko duzue.

“Baina ondo portatu beharko dut beraiekin”, pentsatu zuen Aliziak, “bestela ez naute eraman nahiko nik nahi dudan bidetik! Horregatik eguberriro zapata pare berri bat erregalatuko diet”.

“Baina nolako txorakeriak esaten ari naizen!”

Une hartantxe bere buruak gelako sabaian jo zuen: hain zuzen, orain bi metro baino gehiago neurtzen baitzuen. Berehala urrezko giltzatxoa hartu eta lorategiko aterantz korrika abiatu zen. Gaixoa! Orain inoiz baino zailagoa zitzaion hartan sartzea: gehienez, lurrean zerraldo etzan eta begi bakar batez so egin zezakeen. Lurrean eseri eta negarrari ekin zion berriz ere.

—Lotsatu egin beharko zenuke! —zioen bere kolkorako—. Zu bezalako horren neska handia eta negarretan! Ez dezazula negar gehiagorik egin!

Baina malkoak isurtzen jarraitu zuen, eta malko tantak litroka jaurti zituen, bere inguruko gela erdia estali arte, era horretan hamar zentimetroko hondoa zuen putzu bat osatu zuen.

Denbora gutxi barru bere inguruan hots bat aditu zuenean begiak zabaldu zituen. Hara non zetorren atzera Untxi Txuria, dotore asko jantzita, honela zioen bitartean:

—Ai! Dukeza, Dukeza! Haserretu egingo zait itxoin arazten badut!

Alizia, horren etsita zegoenez, untxiari laguntza eske hurreratu zitzaion:

—Jauna, faborez...

Untxia izugarri beldurtu zen, eta dardarak eraginda eskularru txuriak eta abanikoa lurrera erori zitzaizkion; segituan korrika alde egin zuen iluntasunean galduz.

Aliziak abanikoa eta eskularruak bildu zituen.

Jauna, jauna! Atzo dena normala zen eta gaur zein gauza harrigarriak gertatzen ari zaizkidan! Zenbat gustatuko litzaidakeen nire lagun guztiak ikustea! Honen aspertua nago hemen behean bakar bakarrik egotez!

Hitz horiek esatean, bere eskuetara begiratu zuen, eta untxiaren eskularru txuri haietako batean eskua sartu ahal izan zuela konturatu zen.

—Arranopola! Nola lortu ote dut? Berriro txikia bilakatu al naiz?

Zutitu eta mahaiaren ondoan tente jarri zen, ez zuen hirurogei zentimetro baino gehiago neurtzen, eta oraindik txikiagoa bihurtzen ari zen. Orduantxe konturatu zen abanikoaren eraginez gertatzen ari zitzaiola hura; bat-batean abanikoa laga zuen erabat desagertu baino lehen.

—Hauxe hau eskapada!, eskerrak ez naizela desegin! Eta orain lorategira, ala!

Aterantz joan zen korrika. Baina, ai!, atetxoa oraingoan ere itxita zegoen eta urrezko giltza, lehen bezala, kristalezko mahai gainean. “Gauzak inoiz baino okerrago daude!”, pentsatu zuen. “Izan ere, ez naiz sekula orain naizen bezain txikia izan!”

Gauza hauek guztiak esaten ari zela, bere hanka bat irristatu egin zen eta handik segundo

batera, txap! ur gazian leporaino murgildua aurkitu zen. Hasieran itsasora erori zela pentsatu zuen. Baina berehala konprenitu ahal izan zuen ia hiru metro neurtzen zituenean egindako negarretan isuritako malko putzua zela.

—Hobe nukeen hainbeste negar egin izan ez banu! —esan zuen Aliziak, putzutik atera nahiz igerian jo eta ke ari zen bitartean—. Hau bai dela gogorra, neure malkoetan ito behar! Benetan gauza arraroa hauxe! Baina gaur dena da harritzekoa.

Aldi berean, hots batzuk aditu zituen putzuan bertan; bere aldamenean norbait zebilen zalantzarik gabe, hasieran hipopotamo ala mortsa bat zela pentsatu zuen, baina gero bera zein txikia zen gogoratu zuen eta bera bezala putzura eroritako arratoi bat zela ohartu zen.

—Mereziko al du arratoiari hizketan egitea? Hemen behean dena hain harrigarria da, ez ninduke batere harrituko hitz egingo balu ere. Dena den, eta ez bada mintzatzen ere ez dut deus ere galduko. Eta honela hasi zen:

—O, Arratoi jauna, ba al dakizu nola irten gaitezkeen putzu honetatik? Igerian alde batetik bestera ibiliaz oso nekatuta nago, esaidazu nola, Arratoitxo hori?

Alizia ez zen beste inoiz tankera honetako egoera batean aurkitu; hala ere, arratoiarengana hitz onetan eta begirune osoz zuzendu zela uste zuen. Arratoiak begiratu egin zion, eta begi batez keinuka ari zitzaiola iruditu zitzaion, baina ez zion tutik ere esan. “Behar bada, ez da ingelesez mintzatuko”, esan zuen Aliziak, “arratoi frantses bat izan daiteke”, eta honela jarraitu zuen:

—*Ou est ma chatte?*

Bera ikasten ari zen frantses liburuko lehen esaldia zen hura. Arratoiak egundoko saltoa eman zuen uretan, izurde bat bailitzan, dardarak burutik hanketaraino.

—Otoi, barka nazazu! —oihukatu zuen azkarki Aliziak—. Katuak ez dituzula batere maite ahaztuta neukan.

—Ez zaizkit, ez gustatzen! —esan zuen arratoiak ahots zorrotz eta grinatsu batez—. Zuk atseginak izango al zenituzke katuak, zeu ni izango bazina?

—Beharbada ez —esan zuen Aliziak lasaitu nahian—. Horregatik ez zaitez haserretu. Hala eta guztiz, Dina, nire katua ezagutu beharko zenuke. Hura ikusi orduko katuak maitatzen hasiko zinateke. Zein polita eta goxoa den... eta arratoiak harrapatzen zein trebea den... O, barkatu, faborez! —esan zuen berriro Aliziak. Oraingoan arratoiari hileak nabarmenki harrotu zitzaizkion, benetan oso haserre zegoela zirudien—. Ez dugu gehiago Dinaz hitz egingo, zuk ez baduzu nahi behintzat.

—Hitz egingo dugula diozu! —erantzun zion arratoiak, isatsa bera ere dardarak zuela—. Gai horretaz mintzatuko naizela uste baduzu, zaude lasai! Gure familia honek betidanik gorrotatu izan ditu katuak: pizti nazkagarri eta higuingarri horiek! Ez dut osteria hitz hori entzun nahi ere!

—Ez dut aurrerantzean aipatuko! —ihardetsi zuen Aliziak elkarrizketa gaia aldatu nahian—. Zuk... arratoitxo... zuk zakurrak maite al dituzu?

Arratoiak ez zuen txintik ere esan eta Aliziak honela jarraitu zuen:

—Gure etxe ondoan oso txakur polit bat bizi da, zuk ezagutzea nahiko nuke! Begi distiratsuak eta hile gorri luzea duen terrier txiki bat duzu. Urrutira egur mutur bat bota eta berak segituan atzera ekartzen dizu, eta janaria eskatzeko garaian bi hanka gainean esertzen da... Eta, badakizu, baserritar batena da, baserritarrak beretzat lagun handia dela dio eta ez lukeela ehun liberatan ere salduko. Arratoi guztiak akabatzen omen ditu eta... Ene zer esan dut! Berriro haserrarazi zaitudalakoan nago!

Arratoia hura entzutean zeharo amorraturik Aliziarengandik aldendu zen. Alizia erabat penaturik bere atzetik zihoala goxo goxoki hots egiten zion:

—Arratoitxo, arratoitxo maitea! itzul zaitez hona, ez gara inoiz katuei eta zakurrei buruz mintzatuko!

Hori aditu zuenean, arratoiak buelta eman zuen eta igerian poliki-poliki Alziarengana hurbildu zen. Aurpegia zurbildua zeukan eta ahots dardaratsu batez hauxe esan zuen:

—Goazen lehorrera, eta han nire historia kontatuko dizut, orduan konprenituko duzu zergatik gorrotatzen ditudan horrenbeste katu eta zakurrak.

Hau dena gertatzen zen bitartean putzua animaliaz bete zen. Alizia irten zen aurretik, eta bere atzetik lerratuz talde guztia lehorreratu zen.

3. LASTERKETA EROA ETA HISTORIA LUZEA

Putzu ertzean bildu zen talde osoa: hegaztiak luma zikinez eta beste animaliak hezurretaraino blai eginda deseroso eta umore txarrean kexu zeuden.

Lehenengoz, lehortzeko modua asmatu behar zuten beraien artean eztabaidatuz. Elkarren arteko solasaldiak luzeak izan ziren.

Azkenean arratoiak, itzal eta aginterik handiena zeukana izanik, deiadar egin zien:

—Eseri eta entzun iezadazue denok! Neroni kasu egiten badidazue instant batean lehortuko zarete!

Biribil bat osatuz eseri ziren Arratoia erdi-erdian gelditzen zelarik. Alizia arretaz zegoen berari begira, berehalakoan lehortzen ez bazen izugarrizko katarroa harrapatuko baitzuen.

—Ejem! —egin zuen Arratoiak bere buruari garrantzi gehiago eman nahian edo—. Prest al zarete? Hauxe duzue nik ezagutzen dudan historiarik iharren eta lehorrena. Ixo, faborez! Gilen Konkistatzailea, Aita Santuaren laguntzaz, ingelesek aukeratua izan zen beren buruzagi izan zedin. Mercia eta Northumbriako dukeak...

—Uf! —karraskatu zuen Loritoak hotzikaraz.

—Barkatu —esan zion Arratoiak, kopeta zimurtuz eta gizabide osoz—. Zerbait al zenioen?

—Nik ez! —ihardetsi zuen agudo asko Loritoak.

—Ba... iruditu zait baietz.

Eta historiaren hariari heldu zion berriro: —Mercia eta Northumbriako dukeak Canterburyko artzapezpiku abertzalearen alde jarri ziren, berak hori ongi aurkitu zuen...

—Zer zen aurkitu zuen “hori”? —itaundu zuen Ahateak.

—“Hori” aurkitu zuen eta kito —erantsi zuen Arratoiak haserre samar—. Zerorrek jakin badakizu “hori” hitzak zer esan nahi duen, ezta?

—Noski badakidala! —esan zuen Ahateak marmarrez—. Nik zerbait aurkitzen dudanean harrak edo igelak izaten dira. Orain artzapezpikuak aurkitu zuena zer zen jakin nahi dut.

Arratoiak, entzungor egin zion eta bere historia kontatzen aurrera jarraitu zuen:

—Egokia aurkitu zuen eta Gileni koroa eskaintzea erabaki... Zer moduz zaude orain, Alizia?

—Lehen bezain bustia —erantzun zuen Aliziak malenkoniatsu—. Historia hau oso lehorra da, zalantzarik gabe, baina ni ez nau ezertxo ere lehortzen.

—Orduan —esan zuen Dodoak aho batez, zutitzen zen aldi berean—, sesio-aldi honetan saiheste bati ekin diezaiogula eta sustraitik erremedio erradikalagoa onartzera aurki pasa gaitzela proposatzen dut...

—Mintza zaitetz argi! —protestatu zuen Arranoxkak—. Hitz harroputz horietatik erdiak ere ez dakit zer esan nahi duten, eta, areago, zuk ere ez dakizula uste dut!

Eta bere irribarrea ezkutatzeko asmotan burua makurtu zuen; beste txori askok ordea, barre egin zuten batere disimulurik gabe.

—Nik esan nahi nuena —jarraitu zuen Dodoak haserre—, lehortzeko onena Lasterketa Ero bat egitea dela duzue.

—Zer da Lasterketa Ero bat? —galdegin zion Aliziak.

—Bo, zer den adierazteko modurik egokiena Lasterketa egitea da.

(Eta zuetatik inork noizbait Lasterketa Ero bat egin nahiko balu, honatx nola antolatu zuen Dodoak, ikus zertan zetzan.)

Lehenbizi pista bat marraztu zuen, biribila gutxi gora behera. Gero, bakoitza nahi izan zuen lekuan kokatu zen, eta era berean, bakoitzari egokien zetorkion garaian hasi eta bukatu zuen, beraz, lasterketa noiz amaitzen zen jakitea ez zen gauza oso erraza. Hala ere, handik ordu erdi batera gutxi gora behera, lehorturik zeudenean Dodoak bat-batean deiadar egin zuen:

—Lasterketa amaitu egin da!

Eta denok arnaska inguratu zitzaizkion galdezka:

—Baina nork irabazi du?

Dodoak ezin zuen, ongi pentsatu baino lehen, erantzun bat eman eta luzaro egon zen pentsakizunetan erabakia hartzeko, besteak isil isilik zeudelarik. Eta azkenik:

Eta denak Aliziaren inguruan bildu ziren oihuka:

—Sariak! Sariak!

—Denok gara garaile, denok merezi dugu saria.

—Baina nork banatuko ditu sariak? —galdegin zuten guztiek aho batez.

—Ba berak, noski —esan zuen Dodoak, Alizari begiratz.

Aliziak ez zekien zer egin, eta eskua patrikan sartu zuen, goxoki zorro bat aurkitu zuen eta denen artean banatu zituen.

—Baina berak ere merezi du sariren bat —esan zuen Arratoiak.

—Noski baietz —onartu zuen Dodoak, eta, berarengana hurreratu zen, honela galdegiten ziolarik—: Zer gehiago duzu poltsikoan?

—Titare bat bakarrik —Aliziak.

—Ea titare hori? —Dodoak.

Denak inguruan pilatu ziren, Dodoak itzal handiko hitz hauek esanaz titarea eskaintzen zion bitartean:

—Titare dotore hau har diezaguzula erregutzen dizugu.

Eta mintzaldi labur baten ondoren guztiok gogotik txalotu zuten.

Goxokiak jan izan zituztenean berriro biribil bat osatuz lurrean eseri ziren eta Arratoiari beste historia bat kontatzeko eskatu zioten.

—Zure bizitza kontatuko zenuela agindu zenidan, gogoratzen al zara? —itaundu zion Aliziak.

—Oso errealitate latz eta luzea arrastatzen dut ene atzetik! —oihukatu zuen Arratoiak, Aliziarengana zuzenduz eta hasperen triste bat eginez.

—Egia da, arrastaka daramazun isatsa luzeegia baituzu —esan zuen Aliziak Arratoiaren isatsari so eginez—, baina zergatik diozu latza dela?

Eta Alizia horren sinetsita zegoen Arratoia bere isatsari buruz mintzo zela, historiak beste era bateko itxura hartu zuela bere irudimenean:

Arratoia altxa eta joan egin zen.

—Nahi gabe izan da! —oihukatu zuen Alizia gaixoak. Eta zu horren erraz haserretzen zara! Arratoiak aurrera jarraitu zuen ezer erantzun gabe.

—Itzuli hona, faborez, eta bukatu zure historia —deiadar egin zion Aliziak bere atzetik zihoala.
Eta beste animalia guztiek berarekin batera oihukatu zuten:

—Bai, zatoz, faborez!

—Ez didazu kasurik egiten! —protestatu zuen Arratoiak—. Zertaz ari zara pentsatzen?

—Faborez, ez zaitetz haserretu —esan zuen emeki Aliziak—. Oker ez banago, bosgarren buelta ematen ari zara.

—Ez horixe! —garrasi bizian Arratoiak—. Zer bueltataz ari zara? Nitaz barre egiten ari zara eta tontakeriak besterik ez dituzu esaten!

Baina Arratoiak bere burua alde batera eta bestera mugitu eta pausua estutu egin zuen.

—Hau pena! —esan zuen Loritoak, Arratoia urrutian galdu zenean.

Orduan, Karramarro atso batek alabari aholku bat eman zion gisa honetan:

—Ai, alaba maitea! Horrela, ikas dezazula zure jenio txarraren menpe ez erortzen!

—Ixo ama, isildu aho hori! —protestatu zuen gogorki karramarrotxoak—. Ostra baten pazientzia ere agortzeko kapaz zara eta!

—Hobe Dina hemen gurekin balego! —esan zuen ozenki Aliziak—. Berak berehala ekarriko liguke Arratoia!

—Galde egin badaiteke, bederen, zein da Dina? —jakin nahi izan zuen Loritoak.

Alizia oso gustura mintzatzen zen bete katuaz, eta poz handiz erantzun zion:

—Dina gure katua da. Ez dakizue zein iaioa den arratoiak harrapatzen! Zoragarria da! Txorien atzetik korrika nola ibiltzen den ikusiko bazenute...! Txoritxo bat zitzu batean bereganatzen du! Hitz hauek, bere inguruan zeuden abereen artean izugarritzko zirrara izan zuten. Txori batzuek segituan handik hegaka alde egin zuten. Eta pixkanaka-pixkanaka batzuek aitzakia batekin eta besteak beste batekin denak urrundu ziren. Alizia bakardade gorrian utziaz.

—Hobe Dinaz mintzatu izan ez banintz! —esan zuen tristuraz—. Hemen nire katua ez du inork maite, hala ere, niretzat munduko katurik maiteena da! Ai, Dina maitea! Ikusiko ote zaitut berriro?

Alizia gaixoa berriz negarretan, horren bakarrik zegoen... Handik minutu batzuetara oin hots batzuk aditu zituen, eta atzera zetorren Arratoia zela pentsatuz begirada altxatu zuen.

4. UNTXIAREN ETXEA

Jauzika zetorren Untxi Txuria zen, bazter guztietara begira zetorren, galdutako zerbaiten bila balebil bezala. Aliziak bere marmarrak ere entzun zituen:

—Dukesa! Dukesa! O, zer gertatuko ote den nitaz! Lepoa moztuko dit! Hilarazi egingo nau! Non deabru galdu ote ditut? Non? Non?

Aliziak berehala konprenitu zuen abaniko eta eskularru txurien bila zebilela, eta lan horretan lagundu nahian bera ere txoko guztietan miatzen hasi zen, baina ez zuen arrastorik aurkitu. Dirudenez, bera putzura erori zenetik dena aldatua zen. Kristalezko mahaia, atetxoa eta ataria bera ere desagertu baitziren.

Untxiak Alizia alde batetik bestera abanikoa eta eskularruen bila zebilela ikusitakoan oso haserreturik oihu egin zion:

—Mary Ann, zer deabrutan ari zara hemen! Zoaz etxera eta ekarri itzazu abanikoa eta eskularru txuri pare bat! Agudo!

Alizia oso izuturik, beste pertsona batez hartu zuela esatera ausartu gabe, berak adierazitako bidetik korrika abiatu zen.

Etxe polit batera ailegatu zen, atean brontzezko xafla batean “U .TXURIA” idatzia. Alizia deitu gabe sartu zen eta egiazko Mary Annekin topatzeko beldur handiz eskaileratan gora korrika jarraitu zuen. Abanikoa eta eskularruak aurkitu behar zituen handik inork bidali baino lehen.

—Zein gauza harrigarria —esan zuen Aliziak—, ni untxi baten aginduak betetzen! Hau ikusita, Dinak ere agindu nazake!, baina beldur naiz Dina niri aginduak ematen hastekotan ez duen gure etxean luzarora iraungo.

Gela txikitxo batera heldu zen, berau oso txukuna, leiho ondoan zegoen mahai gainean, espero zuen bezala, abanikoa eta bizpahiru eskularru txuri txiki pare aurkitu zituen, Abanikoa eta

eskularru pare bat hartu eta gelatik ateratzera zihoanean mahaiko ispiluaren gertu zegoen botilatxoaz erreparatu zen. Oraingo honetan ez zuen bestetan bezala “EDAN NAZAZU” idatziriko txartelik. Nolanahi ere ezpainetara eraman zuen.

—Edaten badut ziur nago handiaraziko nauela, aspertuta nago honen txikia izanik —esan zuen. Bai handitu zela! Eta nola! Uste zuen baino gehiago. Botila erdia edan baino lehen buruaz sabaian jo zuen. Botilatxoa bertan behera utzi zuen esanaz:

—Bale, bale, nahikoa da! —nahikoa ez, gehiegi zen, ezin baitzuen atetik pasa—. Hobe horren azkar edan izan ez banu!

Zoritxarrez beranduegi zen! Luzatzen eta luzatzen jarraitu zuen, eta segituan belaunikatu behar izan zuen, geroxeago lurrean etzanda jarri behar izan zuen bestela ez baitzen kabitzen. Baina oraindik hazten jarraitzen zuen eta hanka bat tximiniatik eta besoa leihotik atera behar izan zituen:

—Dagoeneko ezin dut ezer gehiagorik egin. Aurrerantzean zer gertatuko ote zaidan ez dakit! Zorionez botilatxo hartako edari miragarriaren eragina amaitu zen, eta ez zen gehiago handitu. Dena den, oso egoera txarrean gelditu zen, ez zen handik sekula santan irtengo.

Askoz ere goxoago egon ninteke nire etxean. Han behintzat, egunak untxi eta arratoien agintepean kuzkurtzen eta osteria handitzen ez nituen emango.

Horrela, berriketan ziharduela etxe ingurutik zetorren ahots bat aditu zuen.

—Mary Ann! Mary Ann! —zioen ahots horrek—. Ekariezazkidazu segituan nire eskularruak! Gero eskailetako oin hotsak nabarmendu ziren eta bila zetorkion Untxia zela konturatu zen. Untxia gelako ate aurrera iritsi zen eta ireki nahi izan zuen, baina ezin, ate barru aldera zabaltzen zen eta Aliziak ukondoa haren aurka estuturik zeukan mugitu ezinik. Aliziak marmarka ari zela aditu zuen:

—Ba orduan bestaldetik joan eta leihotik sartuko naiz.

—Horixe bai ezetz —pentsatu zuen Aliziak.

Gero zain egon zen Untxia leihopean zegoela sumatu arte. Orduantxe eskua zabaldu zuen zerbait harrapatzekotan. Ez zuen ezer heldu, baina garrasi baten ondoren kristal puskatuen hots zalapartak aditu zituen, Untxia negutegi horietako baten gainean erori zen, dudarik gabe. Geroxeago, oso haserre zegoen Untxiari hitzok entzun zizkion:

—Pat! Pat! Non demontre sartu zara! Non!

Aliziak ezagutzen ez zuen beste ahots batek erantzun zion:

—Hementxe nago, jauna! Zerorren baimenaz aitzurrean!

—Aitzurrean! Nik behar zaitudanean zu beti aitzurrean! —arrapostu zion Untxiak haserre bizian—. Zatoz oraintxe hona! Eta lagun nazazu estutasun honetatik airoso irteten!

Kristal hautsien zarata berriro.

—Esaidazu, Pat, zer da leihoan dakusazun hori?

—Hori beso bat da, jauna.

—Beso bat? Hori ez dakit, baina zu astakirten bat zarela hori badakit. Nork ikusi du inoiz tamaina horretako beso bat? Leiho guztia betetzen du ordea!

—Horixe betetzen duela, jauna! Baina hala eta guztiz beso bat da!

—Dena den, nahiz gauza bat zein beste izan ez du nire leihoan zergatik egon behar. Zoaz eta kendu ezazu hortik!

Isilune luze bat izan zen. Azkenik, Aliziak berriro zabaldu zuen ukabila, eskua airean mugituz

zerbait harrapatzekotan edo. Oraingoan, bi garrasi eta kristal hautsi gehiagoren zarata entzun zen. “Zenbat kristalezko negutegi ote daude hor behean!”, pentsatu zuen Aliziak. “Zer arraiotan ari ote dira orain!”

Minutu batzuetan zain egon zen ezer gehiago aditu gabe. Azkenean orgatxo baten kirrinka eta bertako lagun arteko elkarrizketa entzuterik izan zuen: “Non dago beste eskailera?... Niri bat ekartzeko esan didate; baina bestea Billek izango du... Bill! Mutiko, ekar ezazu eskailera hori hona!... Hemen, laga itzazue kanto honetan... Ez, lehenbizi bata besteari lotu... Horrela erdiak ere ez dira ailegatuko... Noski helduko direla... Zatoz hona, Bill, heldu soka honi!... Teilatuak eutsiko al du honen pisua?... Kontuz teila askatu horrekin!... E, erori egingo dela!... Kontuz buruarekin!”. Une honetan burrunbada beldurgarri bat. “Ia, nor izan da?... Uste dut Bill izan dela... Tximiniatik nork jaitsi behar du?... Nik? Bai zera. Jaitsi zaitetz zu!... Ni ezta pentsatu ere! Billek jaitsi beharko du... Zatoz hona, Bill! Nagusiak tximiniatik jaitsi behar duzula dio!”.

—Bill, gizagaixoa! Lan arriskugarrienak berari ezartzen dizkiote! —esan zuen Aliziak—. Ez nuke bere egoeran aurkitu nahi neure burua: tximinia hau estu samarra da, baina bertan ostikada bat emateko modurik badago.

Aliziak hanka ahal izan zuen guztia tximinian barrena sartu eta aberetxoa iritsi arte itxoin egin zuen. Heldu zenean: “Hemen dago Bill” zioen bitartean, ostikada ikaragarri bat eman zuen.

Hauxe izan zen lehenbizi entzun zuena: “Hor doa Bill!, kanpoan zeuden guztiok batera esana, eta gero Untxiaren ahots bakarra: “Jaso ezazue! E, zuek! Hesiaren ondoan zaudetenok!” Isilune bat eta berriro lagun guztion ahots nahasiak: “Altxa egiozue burua... Eman trago bat... Ez dadila ito... Zer gertatu zaizu, lagun?.., Konta iezaguzu dena!”

Orduan ahots ahul bat entzun zen; Aliziak Billena izango zela pentsatu zuen:

—Beno, gogoratzen dudan gauza bakarra norbaitek ehunka kolpea eman eta airean goraka irtten naizela trapuzko panpina bainintzen!

—Bai, bai, adiskide! Hori ikusia dugu! —esan zuten beste guztiek.

—Etxea erre egin behar dugu! —esan zuen Untxiak.

Eta Aliziak hori aditutakoan bere indar guztiz oihu egin zuen:

—Erretzen baduzue, Dina zuen aurka jaurtiko dizuet!

Isiltasun beldurgarri batek menderatu zuen inguru guztia, eta Aliziak berarekiko honela pentsatu zuen:

—Zer egingo ote dute orain?

Bizpahiru minutu iragan eta gero denek lanari ekin zioten berriro, eta Aliziak Untxiak esaten zuena aditu zuen:

—Orga batekin nahikoa izango dugu hasteko.

—Zeren orgakada ote? —pentsatu zuen Aliziak.

Zerena zen jakiteko ez zuen denbora luzean itxoin beharrik izan. Leihotik barrena harri kokkor pila bota zituzten eta batzuek bete betean aurpegian eman zioten.

—Berehala kikilduko ditut nik horiek —esan zuen bere baitarako, eta aditzeko moduan hauxe erantsi zuen—: Hobe duzue bertantxe geldirik egotea!

Berriz isildu ziren denak. Alizia harriturik gelditu zen harriak gailetak bilakatzen ari zirela ikustean.

“Gaileta hauetako bat jango banu”, —pentsatu zuen—, seguru nago tamainaz aldatuko naizela. Eta gehiago handitzerik ez dudanez gero kuzkurarazi egin beharko nau nahi eta nahi ez”.

Gaileta bat jan eta kuzkurtzen hasi zela ikusi zuen pozez. Atetik igarotzeko nahiko txikia zela

iruditu zitzaionean etxetik kanpora irten zen korrika, kalean aberetxo eta txori talde handi samar bat bere zain zegoela topatu zuen. Alizia azaldu zen bezain pronto denak beregana jo zuten harrapatu nahian. Baina Alizia bere indar guztiz korrika hasi eta laster basoan ezkutatu zen.

— Lehenbizi egin behar dudana —esan zuen Aliziak, basoan zehar zihoan bitartean— berriz luzatzea da, nire betiko tamaina izan arte. Eta bigarrenik, lorategi hartan sartzeko modua aurkitu.

Ekintza oso interesgarriak ziren eta egin beharrekoak gainera, baina ez zekien nondik hasi, ez zekien nola burutu. Horretan zetzan kakoaren larria.

—Ikus dezagun: berriro handitzeko zer egin beharko ote dut? Agian, zerbait jan ala edan, baina “zer”? honatx auzia!

Arazorik larriena “zer?” hori zen. Aliziak inguruan hostoak eta belarrak besterik ez zituen ikusi, baina eginkizun honetarako ez zirela oso jaki egokiak pentsatu zuen. Hurbil samar ordea, berak bezalako luzera zeukan perretxiko bat aurkitu zuen. Perretxikoaren zuztarrean eta bere albo guztietatik begiratu zuenean gaineko txapelean zer zuen begiratzea ere erabaki zuen.

Behatz muturretan zutik jarri eta bere begiak perretxikoaren txapela gainean eserita zegoen beldar urdin baten begiekin topatu ziren. Beldarra pipa luze batetik erretzen ari zen inori inolako kasurik egin gabe.

5. BELDARRAREN AHOLKUAK

Beldarra eta Alizia isil isilik elkarri begira denbora luzez egon ziren; azkenik Beldarrak pipa ahotik kenduz honela esan zion neskatilari.

—Nor zara zu?

Ez zen hau elkarrizketari hasiera emateko oso modu eraginkorra. Aliziak beldurti samar erantzun zion.

—Une honetan, ia zer naizen ere ez dakit, andere... Gaur goizean esnatzean nor nintzen badakit, baina ordutik hona hainbat aldiz aldatu naiz...

—Zer esan nahi duzu? —galdegin zion Beldarrak zorrozki—. Ea, zeure burua argitzen duzun!

—Beldur naiz argitzerik ez ote dudan izango, andere —esan zuen Aliziak—, ikus dezakezuenez ni ez bainaiz neu.

—Nik ez dut ezer ikusten —protestatu zuen Beldarrak.

—Beldur naiz argi eta garbi azaltzerik ez ote dudan izango —esan zuen maiteki Aliziak—, neronek ere ez baitut konprenitzen egun batean bakarrik pertsona bat tamainaz hainbat aldiz alda daitekeenik, eta hau dena nahiko harrigarri gertatzen da.

—Ez da ezer gertatzen —erantzun zuen Beldarrak.

—Beharbada, zuk ez duzu inoiz horrelakorik sentitu —esan zuen Aliziak—, baina edozein egunetan krisalida eta geroago mitxeleta bihurtzen zarenean ikusiko duzu zein harrigarria iruditzen zaizun.

—Ez dut uste —aitortu zuen Beldarrak.

—Beno, beharbada zure sentimenduak eta nireak berdinak ez direlako edo... Baina niretzat oso harrigarria izan da dena.

—Zuretzat! —esan zuen Beldarrak mespretxu handiz—. Eta nor zara zu?

Honela berriz elkarrizketari hasiera emanaz. Alizia, bestalde, nazkatua zen haren erantzuteko moduz eta gogorki esan zion:

—Zerorrek nor zaren esan beharko zenidakeela uste dut.

—Zergatik? —galdetu zuen Beldarrak.

Erantzuteko galdera aldrebesa zen, erantzun jatorrik bururatzen ez zitzaionez eta Beldarrak bere jokaera antipatikoa aldatzen ez zuenez, Aliziak alde egiteko asmoz gibela eman zion.

—Zatoz hona! —hots egin zion Beldarrak atzeko aldetik—. Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut!

Bazirudien orain serio mintzo zela eta Alizia atzera bueltatu zen.

—Zaindu ezazu jenio txar hori!

—Hori al da dena? —itaundu zion Aliziak, bere amorru guztia ahal zuen ongien ezkutatuz.

—Ez —esan zion Beldarrak.

Aliziak beste egitekorik ez zuen, beraz, itxoitea erabaki zuen. Minutu batzuetan Beldarrak erretzen jarraitu zuen, azkenean besoak zabalduz honela esan zuen:

—Orduan zuk aldatu egin duzula uste duzu, ezta?

—Uste dut baietz, andere. Lehen nekizkien gauza askoz ez naiz gogoratzen, eta hamar minutu

ez dira pasatzen ni neurritz aldatu gabe.

—Zein gauzaz ez zara gogoratzen?

—Biderketa taulaz, Europako hiriburuen izenez..., denak alderantziaz esaten ditut! —erantzun zuen tristeki Aliziak—.

—Hori ez dago ondo —erantzun zuen Beldarrak.

Eta minutu batzuetan biak isilik egon ziren. Gero Beldarra bera hasi zen berriz hizketan.

—Nolako luzera izan nahiko zenuke?

—Ez dakit —esan zuen azkar Aliziak—. Baina ez dut nahi beti neurritz aldatzen ibili.

—Pozik al zaude orain daukazun tamainaz? —galdetu zion Beldarrak.

—Beno, luzexeago nahi nuke izan, zerorrek axolarik ez baduzu. Zazpi zentimetro honen gutxi dira!

—Luzera oso egokia duzu hori! —erantzun zuen Beldarrak haserre bizian, gorputza ahal zuen guztia luzatuz (zazpi zentimetro neurtzen baitzuen horrela).

—Baina ni zazpi zentimetrotako luzera izaten ez nago ohituta! Zergatik haserretzen zarete denok horren erraz nirekin?

—Ohituko zara —esan zuen Beldarrak, berriro pipa ahoan sartuz.

Alizia eraman handiz zain gelditu zen oraingoan ere. Hiruzpalau minututara Beldarrak pipa ahotik atera eta aharrausika perretxikotik jaitsi zen belarretara zihoala honela esanaz:

—Alde batetik hazi, eta bestetik kuzkurtu.

—Zeren? alde batetik. Zeren? bestetik —esan zuen bere golkorako Aliziak.

—Perretxikoaren aldeetatik —esan zuen Beldarrak, neskatilak ozenki galdegin izan balio bezala. Eta berehala belar artean galdu zen.

Alizia pentsakor gelditu zen, perretxikoaren alde horiek zeintzuk izan zitezkeen jakin minez, baina hain biribila zen, ze arazoa ez zen batere erraza. Azkenean, besoak luzatu zituen perretxikoaren inguruan eta esku bakoitzean zatitxo bana hartu zuen.

—Eta orain —esan zuen—, zein izango da zein?

Eskuineko zatiari mokadutxo bat eman zion eta kokotsean kolpe handi bat sentitu zuen. Bere kokotsak oinetan jo zuen!

Beldurtu egin zen aldaketa nabarmen harekin, gehiegi kuzkurtu zen, lehenbailehen beste zatitxotik jan behar zuen, ezin zuen denborarik galdu. Baina masailezurra oinetan horren estutua zeukan ze ahoa zabaltzea asko kostatu zitzaiola, zabaldu zuenean ezkerreko eskuan zuen perretxiko zati- txotik mokadutxo bat irentsi zuen.

—Ene, azkenean libre daukat burua! —esan zuen Aliziak lasaiturik.

Baina lasaitasuna urduritasun galanta bilakatu zen berehala; bere bizkarra ere ez zuen ikusten: beheraka begiratzuz lepo luze-luze bat besterik ez zuen ikusten.

—Non ote dago nire bizkarra! —esan zuen Aliziak—. Eta nire eskutxoak, ezin zaituztet ikusi! Bere eskuak bururaino igotzerik ez zuenez gero, burua jaistea erabaki zuen, eta harrituta ikusi zuen zein erraz tolestatzen zuen lepo luze hura edozein direkziotan suge baten moduan. Burua zuhaitzen gainetaraino makurtzea lortu zuen sigi-saga batean, txistu zorrotz batek burua atzealderantz mugitu arazten zion bitartean. Bere bururantz zetorren Uso handi bat zen. Usoak hegalez gogorki jo zuen aurpegian.

—Sugea! —oihukatu zuen Usoak.

—Ni ez naiz sugea! —protestatu zuen Aliziak haserre—. Eta utz nazazu bakean!

—Suge nazkagarria! —jarraitu zuen Usoak, baina ez horren konbentzitua eta zinkurinetan erantsi zuen—: Era guztietan saiatu naiz eta ez dut inoiz ondore onik lortu!

—Ez dakit zertaz ari zaren mintzazen —esan zuen Aliziak.

—Zuhaitzen sustraietan, ibai ibarretan, itsasbazterretan, eta hesietan, denetan saiatu naiz —jarraitu zuen Usoak, Aliziak zioenari kasurik egin gabe—. Baina sugeok beti atzetik! Ezin beren hatzaparretatik libratu!

Usoari bere bakarriketa hura bukatzen uztea zela onena pentsatu zuen Aliziak.

—Berez arrautzak txitatzea nahiko lana ez balitz —esan zuen Usoak—. Gainera sugeetatik zaindu behar gau eta egun! Hiru astetan lo hartu ezinik nago!

—Benetan sentitzen ditut zure nahigabeak eta atsekabeak —esan zuen Aliziak, Usoaren hitzen esan nahia konprenitu zuenean.

—Eta hain zuzen, basoko zuhaitzik gorenena hautatua dudanean —jarraitu zuen Usoak, ahotsa garrasi batean zorrotzuz—, eta hain justu beraietatik libre nagoela uste dudanean, hara non datorkidan bat zerutik behera! Suge nazkagarriak!

—Baina ni ez nauzu suge bat. Ni... Ni...

—Beno, zer zara zu, ba?—esan zion Usoak—. Ea zer arraio asmatzen duzun orain!

—Ni... Ni neskatxa bat naiz —esan zion Aliziak, zalantzaz beterik.

—Zoaz, nahi baduzu, beste batengana ipuin horrekin! —erantzun zion Usoak, era

arbuigarrian—. Neskatxa asko ditut ikusiak, baina ez dut inoiz zuk duzun bezalako lepoa duenik ikusi! Ez, ez! Sugea zara zu, eta alferrik zabilta ukatu nahian! Orain, zeure bizitza guztian ez duzula arrautzarik jan esango didazu, noski!

—Arrautzak jan ditut, bai, behin baino gehiagotan —baieztatu zuen Aliziak, ez baitzuen gezurrik esaten—. Baina neskatxek ere arrautzak jaten ditugu ordea.

—Ez dut uste —esan zuen Usoak—, baina egia balitz arrautzak jaten dituzuela, sugearen familiakoak zaretelako da eta kito.

Horren ideia harrigarri eta berria zen hura Aliziarentzat ze mututurik gelditu zen, eta horrela Usoak marmarka jarraitzeko aukera izan zuen:

—Arrautzen bila zabilta! Ondotxo dakit nik hori! Hartaz, berdintsu zait sugea ala neskatxa izatea!

—Ba, niri ez zait berdin! —aitortu zuen Aliziak—. Eta gainera jakin beharko zenuke ez nabilela arrautzen bila, zureak ez nituzke jango: gordinik ez baitzaizkit batere atsegin.

—Orduan, zoaz hemendik —esan zuen Usoak, habiara zihoan bitartean.

Aliziak zuhaitzen artean murgildu zuen burua. Handik puska batera, perretxikoaren zatiak berekin zituela gogoratu zuen eta batzuetan bati, besteetan besteari mokadutxoak emanaz ihar- dun zen; batzuetan luzatuz, bestetan kuzkurtuz. Azkenean bere betiko tamaina izan eta hasieran arraro samar gertatu zitzaion egoera berri hura. Baina berehala ohitu zen eta ohi zuen bezala bere buruarekin hizketan hasi zen oster.

—Bi helburuetatik bat erdietsi dut! Hala ere, batek ez daki hurrengo minutuetan zer gerta dakioken! Bigarren helburua lorategi miresgarri hartan sartzea da... Nola moldatuko naiz hori lortzeko?

Hori esaten ari zela, zelai zabal batera iritsi zen eta bertan metro bat baino gehixeago neurtzen

zuen etxetxo bat zegoen.

—Tamaina honekin ezin izango dut bertaratu, bestela bertan bizi direnak ikaraz akabatuko nituzke!

Hori zela eta, eskuin eskuko zatitxotik mokadutxo bat hartu zuen, neurriz hogeitazentimetrotara kuzkurtu arte ez zen etxe hartan sartzen ausartuko.

6. TXERRIA ETA PIPERBELTZA

Apur batean begira gelditu zen Alizia, zer egingo ote zuen pentsatuz, bat-batean basotik korrika lekaio bat irten zen (Aliziari lekaio bat zela iruditu zitzaion libreaz jantzita zihoalako; bestela eta bere aurpegia ikusita arrain bat zela pentsatuko zuen ziur aski) eta atea gogor jo zuen. Atea beste lekaio batek zabaldu zion, aurpegi biribila eta igelaren begitzarrak zituena. Biak ile urdin eta kizkurra zeukaten. Alizia zer gertatzen ari zen jakin minez basotik irten zen esaten zutena entzuteko asmotan.

Arrain-Lekaioak beso azpitik gutun handi bat atera zuen, eta beste lekaioari ematen ziolarik honela zioen:

—Dukesarentzat, kroketan jolastera joateko Erreginareen gonbidapena.

Igel-Lekaioak beste horrenbeste errepikatu zuen aho betez:

—Erreginareen gonbidapena. Dukea kroketan jolastera joan dadin.

Arrain-Lekaioa joan zenean bestea etxeko ate ondoan eseri zen zerura zozoki begira jarriz.

Alizia beldurrez hurbildu zen eta atean jo egin zuen.

—Alferrik duzu deitzea —esan zion Lekaioak—, bi arrazoiengatik. Lehenengo, ni zu zauden ateko alderdi berean nagoelako; bigarren, barruan dagoen zarataz ezin dizutelako inolaz ere entzun.

—Esaidazu orduan, faborez —galdegin zion Aliziak—, zer egin behar dut barrena sartzeko?

—Atea joko bazenu beharbada —jarraitu zuen Lekaioak kasurik egin gabe—, atea gu bion artean egonda. Esate baterako, zu barruan bazina atea jo zenezake, eta zu irteteko nik atea ireki nezake orduan.

—Zer egin behar dut sartzeko? —errepikatu zion ozenki.

—Ni hemen eserita bihar arte egongo naiz... —aitortu zuen Lekaioak.

Une horretan atea parez pare zabaldu zen eta plater bat airean izugarrizko abiadan irten zen Lekaioaren bururantz zuzen-zuzen zihoala: sudurrean ukitu zuen justu-justu eta aldamenean zegoen zuhaitz baten kontra txikitu zen.

—... bestela etzi, agian —jarraitu zuen Lekaioak ahots berdintsuaz, ezer gertatu ez balitz bezala.

—Zer egin behar dut sartzeko? —itaundu zuen ostera Aliziak ozenago hitz eginez.

—Baina benetan sartu egin behar al duzu? —esan zuen Lekaioak—. Horixe da lehenengo argitu behar den gauza.

Eta beste hitz batzuetan berriro errepikatu zuen:

—Gerora ere, egunak joan, egunak etorri, hemen eserita egongo naiz ni.

—Baina, zer egin behar dut nik? —lehiatu zen Alizia.

—Nahi duzuna egin —esan zuen morroiak, eta txistuka hasi zen.

—Honekin hitz egiteak ez du merezi! —marmartu zuen Aliziak etsita—. Bai ergela!

Beraz, atea ireki eta barrena sartu zen.

Sartu eta kez betetako sukalde handi batean aurkitu zen. Erdian aulki batean eserita Dukesa zegoen magalean haur bat zuelarik. Sukaldaria zegoen, eta eltze bete batean zopa nahasten ari zen.

—Zopa honek piperbeltz gehiegi dauka, noski! —esan zuen Aliziak bere baitarako, usain egiten

zuen bitartean.

Etxe hartan usain egiten ez zuten bakarrak sukaldaria eta sutondoan irribarre zabal batez etzanda zegoen katu mardul bat ziren.

—Faborez esango al zenidake... —galdegin zuen Aliziak beldurti samar— ...zure katu hori zergatik dagoen halako irribarrez?

—Cheshireko katu bat da —esan zuen Dukesak—, horregatik ari da barrez. Urde-Zerria!!

Azken hitz hori horren haserre esan zuen ze Alizia beldurtu egin zen, baina segituan haurrari demandan egin ziola ohartu zen eta hargatik berriz hizketan hasten ausartu zen.

—Ez nekien nik Cheshireko katuak beti barrez egoten zirenik. Egia esan, barre egin zezaketenik ere ez nekien.

—Denek egin dezakete —esan zuen Dukesak—, eta askok egiten dute. Zuri gertatzen zaizuna ezertxo ere ez dakizula da.

Aliziak ez zuen erantzun hura batere gogokoa izan. Sukaldariak eltzea sutondotik aldendu zuen eta eskutan harrapatzen zuen guztia Dukesari eta haurrari botatzen hasi zen: lehenbizi sutondoko burdinak, gero platerak eta era guztietako ontziak. Dukesak ez zion jaramonik egin nahiz eta batzuetan ontziren batek jo, haurra negar zotinka ari zen bitartean.

—O, faborez, egiten ari zarenaz kontu gehiago eduki ezazu! —oihukatu zuen Aliziak, ontziak airean harrapatu nahian saltoka ari zen bitartean.

—Bakoitza bere arazoez arduratuko balitz —esan zuen Dukesak—, mundua azkarrago, arinago, jirabiratuko litzateke denbora gutxiago alferrik galduz.

—Ba, ez pentsa hori hobe izango litzatekeenik...

—Hobe? —moztu zuen Dukesak—, lepoa moztu diezaiotela, horixe bai hobe!

Alizia ikaratu egin zen eta sukaldariari begiratu zion antsiaz, baina zorionez sukaldaria zopa nahasten ari zen elkarrizketari inolako kasurik egin gabe. Alizia lasaitu egin zen orduan eta hizketan jarraitu zuen:

—...mundua azkarrago mugituko balitz pentsa ezazu zer nolako nahaspila sortuko litzatekeen egunaren eta gauaren artean. Zuk badakizu lurra hogeita lau ordutan ematen duela jira bat...

—Utziko al nauzu bakean —esan zuen Dukesak—, zure kalkulu horiekin nazkarazi gabe? Eta haurrari sehaska-kanta bat abesten hasi zitzaien, bertso bat bukatzen zuen bakoitzean zaplazteko bat ematen ziola.

Gu amorrarazteagatik
usain egiten badaki.
Haur bedeinkatu
horri oihu eta jipoi ugari.

TALDEAK

(Sukaldariak eta haurrak berak parte hartuz)

Gua! Gua! Gua! Gua!

Ai! Ai! Ai! Ai!

Dukesak bigarren ahapaldiarekin jarraitu zuen, baina haurrak negarrez horrenbeste zarata egiten zuen ze kantaren hitza jasotzerik ez zuen izan Aliziak.

—Ea, orain zeuk eragiten diozun pixka batean! —esan zuen Dukesak kanta amaitzean umea airean botatzen zuen bitartean—. Erreginarekin kroketan aritzeko apaintzera noa.

Dukesa agudo asko atera zen sukaldetik. Sukaldariak zartagina bota baitzion, baina ez zuen jo. Aliziak umea besotan hartu zuen, eta azkenean dezente kostata gero menderatu al izan zuen. Izan ere, hainbat mugitzen zen! Eta nolako indarra zuen! Aliziak kanpora atera zuen haizea har

zezan. “Eta nirekin eramaten badut?”, pentsatu zuen, “hemen egun batean ez bada bestean hil egingo dute. Arriskugarriegia da etxe honetan uztea”. Hitz hauek esan zituenean txikitxoak kurruxka bat egin zion.

—Ez kurruxkarik egin —erritan egin zion Aliziak—. Umetxo batek ez du horrelakorik egin behar. Haur txikiak berriro egin zuen kurruxka. Aliziak zer gertatzen zitzaion jakin nahian aurpegira begiratu zion. Ez zegoen dudarik, haren sudurrak mutur bat ematen zuen. Aliziari horrek ez zion batere graziarik egin. “Negarrez aritu delako ote?”, pentsatu zuen, eta haren begiei erreparatu zien orduan, baina ez zuen malkorik.

—Txerri bihurtzen bazara —esan zuen serioski Aliziak—, ez zara gehiago nirekin ibiliko. Kontuan har itzazu hitzok!

Ume gaixoak berriro kexuka (...kexuka ala kurruxka?, auskalo zer egin zuen).

Eta zer egingo dut nik ume honekin etxera itzuli behar dudanean?

Ume txikitxoak beste kurruxka bat egin zuen. Oraingoan ez zegoen zalantzarik: txerrikume bat zen eta Aliziari hura besotan edukitzea zerrikeria iruditu zitzaion. Beraz, lurrean laga zuen. Aliziarengandik gertu eta zuhaitz baten adarrean eserita Cheshireko Katua zegoen.

Katuak Alizia ikusi zuenean irribarre goxo bat egin zuen. Umore onekoa zela zirudien. Baina hatzaparrak luze eta zorrotzak zituen, alajainkoa!

—Cheshireko Mixintxo —hasi zen Alizia beldurri samar, ez baitzekien tratamendu hura gustatuko zitzaionik— Cheshireko Mixintxo horrek, esango al zenidake zein bide hartu behar dudan hemendik irteteko?

—Norantz joan nahi duzun jakitean bide bat ala beste hartu beharko duzu.

—Norako bidea den ez du axolarik... —esan zuen Aliziak.

—Orduan edozein bide hartu —erantsi zuen Katuak.

—...norabait ailegatuz gero —Aliziak esplikatu nahian.

—O, etsitzen ez baduzu beti helduko zara norabait! —ziurtatu zuen Katuak.

Aliziak, gai hartaz Katuarekin konponbide onik ez zela ikusita, beste galdera bat egitea erabaki zuen:

—Zer jende mota bizi da inguru honetan?

—Alde horretatik —esan zuen Katuak, hankaz eskuin aldera seinalatuz— Kapelagilea bizi da. Eta handik —beste hanka mugituz— Martxoko Erbia bizi da. Biak bisitatzera joan zaitezke, baina erotuak daude.

—Baina ero batzuekin egotea ez dut batere gogoko —protestatu zuen Aliziak.

—O, hemen nahi eta nahi ez egon beharko duzu ba. Denok gaude erotuak eta. Ni hala nago bederen. Eta zu ere bai.

—Nola dakizu ni eroturik nagoela? —itaundu zuen Aliziak.

—Erotua egon behar duzu, bestela ez zinen hona etorriko. Jolastu behar al duzu gaur Erreginarekin kroketan?

—Gogo handiz jolastuko nintzateke, baina oraingo ez nau gonbidatu.

—Hantxe ikusiko gara berriz —ziurtatu zuen Katuak, eta desagertu egin zen.

Alizia ez zen hargatik gehiegi harritu, ordurako ohituta zegoen.

Katua aienatu zen lekura begira zegoen oraindik ostera berragertu zenean.

—Ahaztuta nuen, zer gertatu da besotan zenuen umetxoarekin? —galdegin zion Aliziari.

—Txerrikume bat bilakatu da.

—Banekien azkenean horixe gertatuko zela —esan zuen Katuak eta berriz desagertu zen.

Handik bospasei minututara Alizia Martxoko Erbiaren etxe aldera abiatu zen.

—Kapelagile batzuk ezagutu ditut lehen —esan zuen bere baitarako—. Martxoko Erbia ezagutzean interesgarriagoa izango da. Gainera, maiatzean gaude eta beharbada pasatua du eromenaldia...

Berehala ailegatu zen Martxoko Erbi-enera. Tximiniak erbien belarriak bezain luzeak ziren eta pareta larruzkoa, horregatik pentsatu zuen hura izango zela Erbiaren etxea. Oso handia zen, hargatik ezker eskuko perretxiko zatitxotik mokadutxo bat jan baino lehen ez zen etxe hartan sartzen ausartuko, hala ere bi arra neurtzen zuelarik atera hurbildu zen beldurrez:

—Eta benetan ero balego? Agian, Kapelagilearengana joan izan banintz hobe!

7. EROEN ARTEKO MERIENDA

Mahaia etxe aurreko zuhaizpean jarria zegoen, bertan Martxoko Erbia eta Kapelagilea tea hartzen ari ziren. Beraien artean Muxarra eserita lotan, eta biek beren besoak ezartzeko burkotzat hartua zuten. “Muxarra bai egoera txarrean dagoela”, pentsatu zuen Aliziak. “Baina lotan dagoenez gero, agian ez du ezer sentituko”.

Mahaia oso handia zen, baina hirurak mutur batean estu-estu zeuden.

—Ez dago lekurik —oihukatu zuten, Alizia hurbildu zenean.

—Leku asko dago! —protestatu zuen Aliziak suminduta, eta besaulki handi batean eseri zen.

—Har ezazu ardo pixka bat —esan zion Martxoko Erbiak. Aliziak mahai osoan begiratu zuen, baina han tea baizik ez zegoen.

—Hemen ez dut ardo tantarik ikusten.

—Noski, ez baitago.

—Ez duzun gauza bat eskaintzea ez da gizabide onekoa —esan zuen Aliziak haserre.

—Gonbidatu gabe gurekin hemen esertzea ere ez —esan zuen Martxoko Erbiak.

—Ez nekien mahaia zurea zenik. Hiru pertsona baino gehiagorentzat dago gertatua.

—Ile mozketa on baten beharrean zaude — esan zuen Kapelagileak.

—Besteen gauza pertsonaletan sartu gabe egoten ikasi beharko zenuke —esan zion Aliziak garraski—. Edukazio txarrekoa baita.

Hori entzutean, sagarraren tamainako begi handiak erakutsi zituen; hala ere, hauxe esan zion

soil soilik:

—Hilabeteko zein eguna da gaur?

Erlojua poltsikotik atera eta eskutan zerabilen astinaldi bakoitzean belarrira eramanez, tarteka orratzek zer ordu ematen zuten begiratu.

Aliziak ongi pentsatutakoan:

—Hilaren laua da —esan zuen.

—Bi egun atzeratua! —esan zion arranguraz Kapelagileak Martxoko Erbiari—. Esan nizun gurina ez zela ona erlojuaren makineriarentzat!

—Gurin onenetakoa zen ba —erantzun zion Erbiak penaturik.

—Bai, baina ogi apurrak sartuko zitzaizkion. Ez zenuen ogitarako labana erabili behar.

Martxoko Erbiak erlojua hartu eta begirada malenkoniatsu batez bere te katiluan murgildu zuen. Gauza hobeagorik ez zitzaion bururatu eta lehen esandakoa errepikatu zuen:

—Badakizu, gurin onenetakoa zen. Aliziak Erbiaren bizkar gainetik begi luzez ordularia ikusi zuen.

—Bai erloju arraroa! —oihuka—. Hileko eguna ematen du, eta ez du ordurik ematen!

—Eta zergatik eman beharko luke, ba? —purrust egin zuen Kapelagileak—. Zureak urtea ematen al du?

—Ez ba —onartu zuen Aliziak arin— Urte berean denbora luzez dagoelako da hori.

—Horixe bera gertatzen zaio nireari —esan zuen Kapelagileak.

Alizia zeharo harritia gelditu zen. Kapelagilearen hitzek ez zuten zentzurik eta.

—Ez dut ulertzen —esan zuen berak, eztiki.

—Muxarrak berriz lo hartu du —esan zuen Kapelagileak, eta muturrera te pixka bat bota zion.

Muxarrak burua astindu zuen, eta begiak zabaldu gabe esan zuen:

—Horixe baietz, horixe baietz. Hori bera esan behar nuen nik.

—Aurkitu al duzu asmakizunaren irtenbidea? —itaundu zuen Kapelagileak, Aliziari zuzenduz.

—Ez. Etsi dut. Zein da irtenbidea?

—Ez dut ideiarik ere, zein izan daitekeen —esan zuen Kapelagileak.

—Ezta nik ere —erantsi zuen Martxoko Erbiak.

Alizia amorru bizian zegoen.

—Denbora pasatzeko era egokiago bat aurkitu beharko zenuketela uste dut —esan zuen—, irtenbiderik ez duten asmakizunak proposatzen ihardun beharrean.

—Zuk denbora nik bezain ongi ezagutuko bazenu! Denbora pertsonaia handi bat da!

—Ez dakit zer adierazi nahi duzun —protestatu zuen Aliziak.

—Bai, badakizu noski! —esan zuen Kapelagileak sudurra zimurturik keinu arbuiagarri batean—. Ziur nago ez duzula inoiz Denborarekin hitz egin!

—Ez, uste dut ezetz —erantzun zuen Aliziak kontu handiz—. Baina musika ikastean denbora

txalo bidez neurtu behar izaten dut.

—A, horrela adierazia dago dena! —esan zuen Kapelagileak—. Denborak ez du txalorik ametitzen. Berarekin harreman onak bazenitu ordea, erlojuarekin nahi duzun guztia egingo luke. Adibidez, eman dezagun goizeko bederatziak direla, eskola hasteko garaia, zure nahia Denborari jakinaraztea besterik ez zenuke eta Denborak ordulariaren orratzak mugituko lituzke. Ordu bata eta erdiak! Otordua! Gainera, otordua nahi duzun denbora guztian luza zenezake, hala nahi izanez gero.

—Zuek, hori dena lortzen duzue? —galdegin zuen Aliziak.

—Nik ez! —erantzun zuen—. Joan den martxoan haserretu ginen biok, hau erotu baino lehentxeago —eta Martxoko Erbia seinالاتu zuen.

Aliziak orduan bat-batean konprenitu zuen han jazotzen zena.

—Horregatik dago hainbat katilu mahai gainean, ez da?

—Bai, horregatik —erantzun zuen Kapelagileak—. Beti te garaia dugu, ez dugu garbitzeko denborarik izaten.

—Eta mahaiaren lekuz aldatzen zarete, ez da? —galdegin zuen Aliziak.

—Hori da, katiluak zikintzen ditugun bakoitzean.

—Baina, zer gertatzen da berriz mahaiaren hasieran aurkitzen zaretenean? —galdetzera ausartu zen Alizia.

—Eta zer moduz gaiaz aldatuko bagenu? —moztu zuen Martxoko Erbiak aho zabalka —. Ea neskatila honek ipuin bat kontatzen digun.

—Beldur naiz ez ote zaidan bat ere gogoratuko.

—Orduan, Muxarrak konta dezala! —esan zuten Kapelagileak eta Martxoko Erbiak batera—.
Esna, Muxarra!

Eta bi aldetatik atximurka hasi zitzaizkion.

Muxarrak begiak poliki-poliki zabaldu zituen.

—Ez nengoen lotan —ziurtatu zuen ahots marrantatsu eta ahul batez—, zenioten guztia
aditzen aritu naiz.

—Kontaiezaguzu ipuin bat! —esan zuen Martxoko Erbiak.

—Bai, faborez! —eskatu zion Aliziak.

—Eta azkar —erantsi zuen Kapelagileak—. Bestela amaitu baino lehen berriro lo hartuko duzu
eta.

—Behin batean hiru ahizpa ziren —hasi zen presaka Muxarra—, beren izenak: Elsie, Larie eta
Titie, eta putzu sakon baten hondoan bizi ziren...

Eta zer jaten zuten? —galdegin zuen Aliziak.

—Ezti-hondarra jaten zuten —erantzun zuen.

—Ezin daiteke —adierazi zuen Aliziak maiteki haserre ez zedin—. Oso gaixotasun txarra sortzen
du horrek.

—Eta hala gertatu zen —esan zuen Muxarrak—. Oso gaixo gelditu baitziren.

—Baina nola bizi ziren putzuaren hondoan? —itaundu zuen Aliziak.

Muxarra bizpahiru minututan edo... pentsatzen gelditu zen, eta azkenean esan zuen:

—Ezti-hondarra zuen putzua zen.

—Ez dago horrelako putzurik!

Alizia gogor mintzatu zen, baina Kapelagilea eta Martxoko Erbiaren artean isilarazi egin zuten: “Txit!” “Txit!”, Muxarrak erreminduta honela zioen bitartean:

—Ez baduzu behar bezalako edukazioz portatu behar, hobe izango duzu ipuina zerorrek bukatzea.

—Ez, faborez, jarraitu! —esan zuen Aliziak, umil-umil—. Ez dizut berriro trabarik egingo. Baliteke halako putzuren bat izatea.

—Bat behintzat badago! —eta ipuinaren hariari ekin zion berriro—. Horrela bada, gure hiru ahizpatxoak... marrazten ikasten ari ziren, janaria atera...

—Zer janaria ateratzen zuten? —galdegin zuen Aliziak, agindu zuena ahantzirik.

—Ezti-hondarra —erantzun zuen Muxarrak astirik galdu gabe.

—Katilu garbi bat nahi dut —moztu zuen Kapelagileak—. Alda gaitezen leku bat harantzago. Denok eserleku bat aurreratu ziren.

Aliziak ez zuen Muxarra ostera mindu nahi, beraz kontu handiz mintzatu zen:

—Baina ez dut ulertzen. Nondik ateratzen zuten ezti-hondarra?

—Ur putzu batetik ura atera daiteke —esan zuen Kapelagileak—, zergatik ezin daiteke atera ezti-hondarra ezti-hondar putzu batetik? Ez zaitez, faborez, ergela izan!

—Baina berak putzu barruan, hondo hondoan zeuden —esan zion Aliziak Muxarrari, Kapelagilearen azken hitzak kontuan hartu nahi izan gabe.

—Noski zeudela. Eta ondo-ondo egon ere.

Muxarrak zerbait alderantziz entenditu ziola konturatzean Alizia puska batean isilik egotea erabaki zuen.

—Gure hiru ahizpak, beraz, marrazten ikasten ari ziren —segitu zuen Muxarrak, logura ikaragarria zuelarik—, eta denetik marrazten zuten... “M” hizkiak hasten zen dena...

—Eta zergatik M-z hasten zirenak? —itaundu zuen ostera Aliziak.

—Eta zergatik ez? —galdegin zuen Martxoko Erbiak.

Alizia isildu egin zen.

Ordurako Muxarra lo hartzen ari zen. Baina Kapelagileak berriz atximurka egin zion eta kontatzen jarraitu zuen:

—... M-z hasten dena: mundua, mina, mamua, multzoa... Ikusi al duzue inoiz multzo bat marraztua?

—Orain zuk esaten duzulako —esan zuen Aliziak—, aitortu behar dut ez dudala pentsatzen...

—Ba... ez baduzu pentsatzen, isil zaitez! —moztu zion Kapelagileak.

Aliziak ezin izan zuen zatarkeria hori jasan: oso nahigabetua altxa eta handik alde egin zuen.

—Ez naiz sekulan hona bueltatuko, zernahi gertatua ere! —esan zuen Aliziak bere golkorako, basorantz abiatuz—. Hau nire bizitza guztiko meriendarik zozena izan da, zalantzarik gabe!

Hori esaten zuen bitartean zuhaitz haietako baten enborrean ate bat zegoela ikusi zuen.

—Bai arraroa! —pentsatu zuen, baina barrena sartu zen segituan.

Berrero kristalezko mahaia zuen atari handi hartan aurkitu zen. “Oraingoan gauzak askoz hobeto egingo ditut”, esan zuen berekiko. Eta lehenbiziko giltzatxoa hartu eta lorategiko atea ireki zuen. Orduan perretxikoa kontuz jaten hasi zen, eta esku baten neurria izan zuenean pasabide estu hartatik barneratu zen. Eta orduan... orduan, azkenik, lorategi harrigarrian aurkitu zen.

8. ERREGINAREN KROKET JOLASA

Lorategiko sarreran arrosa landare bat zegoen: bere loreak txuriak ziren, baina han zeuden hiru lorazainak gorritz pintatzen ari ziren. Alizia gertuagotik ikustearren bertara inguratu zen, eta lorazainen elkarrizketa entzun zuen:

—Kontuz, Bost! Ez nazazula pinturaz ziprztindu!

—Ez dizut nahita egin —esan zuen Bostek, mindurik—. Zazpik ukondoan jo dit eta.

Hori zela eta, Zazpik begiak altxa zituen esanaz:

—Oso ondo, Bost! Errua beti besteen bizkarretara!

—Isilarazi ezazu aho hori! —esan zuen Bostek—. Lepoa moztea merezi zenuela entzun nion atzo bertan Erreginari!

—Zergatik? —galdegin zuen aurrenean hitz egin zuenak.

—Hori zuri ez zaizu axola, Bi! —zioen Zazpik.

—Bai, axola zaio! —protestatu zuen Bostek—. Sukaldariari tipulak eraman ordez kukupel erraboiak eraman zizkiolako izan baitzen.

Zazpik brotxa lurrera bota zuen eta: “Zer demontre! Bidegabekeria guztietatik...” esaten ari zenean, Alizia beraiei begira ari zela ohartu zen, eta bertan behera isildu ere. Beste biak ere neskatxa ikusteko bueltatu ziren eta hirurak batera erreberentzia sendo eta luze bati egin zioten.

—Esango al zenidake faborez —hasi zen beldurri samar Alizia—, zergatik ari zareten arrosak margotzen?

Bostek eta Zazpik ez zuten hitzik egin, baina Biri so egin zioten. Bi hasi zen ahots dardaratsu batez:

—Ba, begira andereño, landare honek arrosa gorri bat izan behar zuen, baina guk nahi gabe txuria landatu genuen, eta, Erreginak jakiten badu, lepoa moztuko digu hiruroi. Beraz, bera datorrenerako ahaleginak egiten ari gara...

Orduantxe Bostek oihu egin zuen: “Erregina! Erregina!”, eta hiru lorazainak lurrera zerraldo bota ziren.

Aliziak Erregina ikusi nahi zuen eta zutik gelditu zen.

Hasieran, aurren aurrenean, hamar gudari azaldu ziren. Gero atzetik eta gudariak bezala lerroz lerro binaka beste hamar gortegizon goitik behera diamantez apainduak. Segidan errege semeak zetozen; hauek ere hamar ziren eta bihotzez apainduak zeuden. Gero gonbidatuak, gehienak errege erreginak eta beraien artean Untxi Txuria ikusi zuen Aliziak. Jarraieran Bihotz Baleta zetorren, tertziopelozko bururdi baten gainean Erregeren koroa zeramala. Eta azkenik, talde eder honen bukaeran BIHOTZEN ERREGE ETA ERREGINA.

Taldea Aliziaren parera heldu zenean, denok bertan geratu ziren berari so eginez, eta Erreginak itaunduz:

—Nor da hau?

Galdera Bihotz Baletari egin zion baina Baletak burua makurtuz irribarrea besterik ez zuen egin.

—Kaiku hori! —esan zuen Erreginak Baletari begiratzuz, eta segidan Aliziarengana zuzenduz galdegin zion:

—Nola duzu izena?

—Alizia da nire izena, zure Maiestate horri zerbitzatzeko prest dagoena —erantzun zion Aliziak

oso gizatsu.

Baina bere barrurako honela jarraitu zuen: “Ez dut zertan beldurtu beharrik! Izan ere, karta pilo bat baizik ez dira denak!

—Eta zeintzuk dira beste hauek? —galdezka segitu zuen Erreginak, lurrean etzanda zeuden hiru lorazainak seinalatuz.

Buruz behera zeudenean egonda bakar bakarrik atzealdea ikusten zitzaien, eta atzealde hori karta guztietan berdina zen. Beraz, Erreginak ezin zuen jakin lorazainak, ala gudariak, ala gortegizonak, ala bere hiru seme zirenik ere.

—Eta zergatik jakin beharko nuke nik hori?

Erregina sutan eta bekozko gaizto batez oihuka hasi zen:

—Lepoa moztu diezaiotela! Lepoa moztu...!

—Lelokeriak! —esan zuen Aliziak ozenki eta oso ausarki.

Eta Erregina isildu egin zen.

Erregek besotik emeki-emeki heldu zion esanez:

—Kontura zaitez, ene maite, neskatxa bat baizik ez dela!

Erreginak ez zion jaramonik egin eta Baletari honela esan zion:

—Jarri itzazu horiek gora begira!

Eta Baletak, oso poliki eta hanka batez baliatuz agindua bete zuen.

—Zutik! —deiadar egin zuen Erreginak, era gogorrez.

Eta hiru lorazainak jauzi batean zutitu ziren, aurrean zituzten guztiei erreberentzia sendoak eginaz.

—Nahikoa da! —oihu egin zuen Erreginak—. Urduri jartzen nauzue!

Eta gero arrosa ikusiaz:

—Zer deabrutan aritu zarete hemen?

—Zure Maiestate horren baimenaz —hasi zen Bi umil asko hizketan, belaun bat lurreratzen zuen bitartean— Arrosa... Arrosa...

—Bai, ikusi dut! —deiadar egin zuen, arrosak miatu ondoren—. Lepoa moztu diezaietela!

Lagun taldea martxan jarri zen, baina hiru gudari han gelditu ziren Erreginarekin agindua betetzeko asmoz.

—Ez dizuete lepoa moztuko! —esan zuen Aliziak, eta inguruan zegoen loreontzi handi batean gorde zituen.

Hiru gudariak bilaka ihardun ziren, baina azkenik aspertuak segizioaren atzetik abiatu ziren.

—Haien lepoak galdu al dituzue? —oihukatu zuen Erreginak.

—Bai, galdu ditugu, Zure baimenaz Maiestate —erantzun zioten gudariak.

—Oso ongi! —Erreginak—. Ba al dakizu kroketan jolasten? —gudariak isildu egin ziren, izan ere, galdera Aliziari zuzendua zen.

—Bai! —Aliziak oihuka.

—Goazen ba! —agindu zuen Erreginak.

Eta Alizia talde guztiarekin batera joan zen.

—Eguraldi... eguraldi zoragarria dago! —marmartu zuen bere aldamenetik ahots beldurti batek.

Untxi Txuria zuen alboan.

—Oso ona —esan zuen Aliziak—. Non dago Dukesa?

—Ixo! Ixo! —esan zuen Untxiak baxu samar eta azkarki.

Hizketan ari zen bitartean atzeraka begiratzen zuen, eta behatz muturretan jarriz belarrira zurrumurruka esan zion:

—Herio zigorra eman diote.

—Zergatik? —jakin nahi izan zuen Aliziak.

—“Gaixoa” esan duzu? —itaundu zuen Untxiak.

—Ez, ez dut horrelakorik esan. Ez dut uste batere “gaixoa” denik. Zergatik?, esan dut.

—Muturreko bat eman zion Erreginari... —hasi zen esaten Untxia, eta Alizari barregura eman zion—. Txit! Txit! —egin zuen Untxiak izaturik—. Erreginak aditu egingo dizu! Begira, Dukesa nahiko berandu iritsi zen, eta Erreginak esan zion...

—Bakoitza bere lekura! —oihukatu zuen Erreginak trumoia bailitzan.

Eta denak korrika hasi ziren. Hala ere, handik minutu batzuetara bakoitza bere tokian zegoen,

eta jokaldiari hasiera eman zioten. Aliziak ez zuen inoiz kroket arraroagorik ikusi. Bolak triku biziak ziren, mazoak ere flamenko biziak eta gudariak makurtu egin behar zuten lau hankatan jarriz uztaiak (txirringak) osatzeko.

Jokalariek, denek batera jolasten zuten, beren txandari itxoin gabe, trikuak bereganatzeko eztabaidaka eta mokoka. Berehalaxe Erregina paroxismo basati batean suminduta aurkitu zen eta lurrari ostikoka alde batetik bestera eten gabe oihuka zebilen: “Moztu diezaiotela honi lepoa!” edo “Moztu diezaiotela beste horri ere!”

Alizia ez zegoen oso gustura: egia esan, berak ez zuen inoiz Erreginarekin sesiorik izan, baina bazekien edozein momentutan izan zezakeela. “Eta orduan”, pentsatu zuen, “zer gertatuko ote zait?”. Hemen dena lepoak moztuz konpontzen dute. “Harritzekoa da oraindik inork bizirik irautea!”

Inork ikusi gabe handik aldegitoko modu baten bila ziharduen bada, airean zerbait begiztatu zuenean. Hasieran harritia gelditu zen, baina geroxeago irribarre zabal bat zela ohartu zen, eta:

—Cheshireko Katua da, orain norbaitekin hitz egin ahal izango dut —esan zuen.

—Zer moduz zaude? —esan zion Katuak.

Alizia Katuaren begiak agertu arte zain egon zen, eta orduan keinu batez agurtu zuen. “Alferrik izango zait mintzatzea belarriak agertzen ez zaizkion bitartean”, pentsatu zuen. Handik minutu batera buru osoa azaldua zen.

Katuari burua agertzea nahikoa zela iruditu zitzaion eta horrela gelditu zen, ezer gehiago agertu gabe.

—Ez dute batere ongi jolasten —esan zuen Aliziak—. Beti liskarretan!

—Erregina zer iruditzen zaizu? —Katuak galdezka.

—Ez dut batere gustukoa —esan zuen Aliziak—. Irabaztera horren...

Une honetan Erregina bere atzean berak zioena entzuten ari zela ohartu zen Alizia, baina hala ere, honela jarraitu zuen:

—...irabaztera horren emana da, jokaldia amaitzea ere ez duela merezi.

Erreginak irri egin eta aurrera jarraitu zuen.

—Norekin ari zara berriketan? —galdegin zion Erregek, Katuari harrituta begiratzuz.

—Nire lagun bat da... Cheshireko Katu bat da —esan zuen Aliziak.

—Duen itxuragatik ez zait ezertxo ere gustatzen —ziurtatu zuen Erregek—. Hala ere, nire eskutan muin egin nahiko balu...

—Nahiago dut horrelakorik ez egin —aitortu zuen orduan Katuak.

—Lotsagabea! —esan zuen Erregek—, ez nazazu era horretan begiratu, txatxu hori!

Eta Aliziaren atzean babestu zen, mintzo zen bitartean.

—Katu bat errege baten aurrez aurre begira egon daiteke —zihurtatu zuen Aliziak—. Libururen batean irakurria dut.

—Ba, deuseztu egin behar da —esan zuen Erregek, eta Erreginari hots egin zion.

Erreginentzat arazoak konpontzeko bide bakarra zegoen.

—Lepoa moztu! —agindu zuen, ia begiratu gabe.

—Ni, neu, joango naiz borreroaren bila —esan zuen Erregek.

Eta korrika alde egin zuen.

Aliziak onena jolastera joatea izango zela pentsatu zuen. Dagoeneko Erregina oso haserre zegoen, orduantxe hiru jokalariri zegokien txandetan ez jolasteagatik herio zigorra emana baitzien.

Ostera Katuarengana itzuli zenean, inguruan jende mordoxka bildua zela ikusi zuen harrিতuta. Borreroa, Errege eta Erregina, beste guztiak isilik zeuden bitartean, eztabaidan bero-bero ziharduten hirurek batera hitz eginez.

Alizia azaldu zenean hirurak berarengana zuzendu ziren, zer egin behar zen berak erabaki zezan, eta beren arrazoinamenduak eman zizkioten.

Borreroak lepoa ezin zitzaiola moztu esaten zuen, burua bakarrik zuelako; eta inoiz egin ez zuena ez zuela gerora ere egingo aitortu zuen.

Tontakeriak alde batera utzi eta burua zuen edozer gauza burumoztu zitekeela zioen Erregek. Arazoa bertantxe konpontzen ez bazuten, inguruan zeuden guztiei lepoa moztuko ziela zen Erreginaren teoria. (Mehatxu hau zela eta zeuden denak izu eta larri).

Aliziak orduan hauxe esan zuen:

—Katua Dukesarena da, katu honekin zer egin behar den berari galdetzea izango litzateke onena.

—Dukesa kartzelan dago —esan zuen Erreginak, eta segidan borreroari—. Zoaz eta ekarri!

Eta borreroak alde egin zuen.

Katuaren burua desagertzen hasi zen borreroa joan eta gero, eta berau Dukesarekin ostera

heldu zenerako erabat desagertua zen. Horrela ba, Errege eta borreroa katuaren bila hasi ziren, beste guztiak kroket jokaldiari berriro ekin ziotenean.

9. DORTOKA FALTSUA ETA OTARRAINAREN DANTZA

—Ez dakizu zein pozik nagoen zu berriz ikustez! —esan zuen Dukesak, Aliziari besotik ezteki heltzen zion bitartean.

Alizia ere oso pozik zegoen Dukesa horren umore onez ikusita, eta bere baitarako, Dukesa lehen horren haserre egoten bazen sukaldean zegoen piperbeltz usainarengatik izango ote zen, pentsatu zuen.

—Orain jokoa hobetzen ari dela dirudi —esan zuen Aliziak.

—Horrela da —baieztatu zuen Dukesak—, eta honen ikaskizuna hau da... “O, maitasuna, maitasuna. Maitasunak mundua mugi arazten du”.

—Bakoitzak bere gauzak bakarrik zuzenduz gero, mundua arinago mugituko zela esan zuen behin pertsona batek.

—Beno, beno. Azken batean berdintsu da —esan zuen Dukesak, hauxe erantsiz: Eta honen ikaskizuna...

“Hau mania, gauza guztiei ikaskizun bat aurkitu nahi izatea!”, pentsatu zuen Aliziak.

Denbora dezente pasata gero, Dukesaren ahotsa ahultzen ari zela eta Aliziari heltzen zion besotik dardarak zegoela nabaritu zuen harriturik Aliziak. Begiak altxa eta beren aurrean, Erregina bekozkoz ikusi zuen.

—Egun zoragarria dugu, Maiestate! —hasi zen Dukesa dardaratsu esanez.

—Orain gauzak argi eta garbi utzi behar ditugu —marru egin zuen Erreginak, mintzo zen bitartean lurrean ostiko bat emanez—. Zu ez bazara zure buruak suntsitu beharko du! Eta ziztu batean gainera! Zeuk aukera!

Dukesak aukera egin zuen, eta bat-batean deuseztatu zen.

—Eta goazen orain jolastera —esan zion Erreginak Aliziari.

Alizia izutuegi zegoen, ezer esatera ausartzeko, eta Erreginarekin batera kroket zelaira joan zen mantsoki.

Beste gonbidatuek Erregina ez zegoela eta, itzalpean etzanda zeuden, baina Erregina bazetorrela ikustean berriro jolasten hasi ziren.

Jolasten aritu ziren denbora guztian Erregina beste jokalariekin borrokan eta eten gabe oihuka ihardun zen “Lepoa moztu honi!” eta “Beste horri ere moztu!”. Kondenatuak gudariek zaintzen zituzten, eta noski, hartaz hauek uztai izateari uko egin behar zioten.

Denbora gutxi barru ez zen ez uztairik, ezta jokalaririk ere, Errege, Erregina eta Alizia izan ezik. Orduan Erreginak arnasa hartu ezinik jokaldiari amaiera eman zion, eta Aliziari galdegin zion:

—Ikusi al duzu Dortoka Faltsua?

—Ez —esan zuen Alziak—. Dortoka Faltsu bat zer den ere ez dakit.

—Ez al duzu inoiz Dortoka-zoparik jan? —galdegin zuen Erreginak—. Ba, beste zopa mota bat ere badago Dortokarena bezalakoxea, baina benetakoa ez dena.

—Ez dut inoiz entzun eta ikusi horrelakorik —esan zuen Alziak.

—Goazen, ba! —agindu zuen Erreginak—. Eta Dortoka Faltsuak bere historia kontatuko dizu. Bazihoazen, eta Erregek talde guztiari baxu samar honela esaten ziela entzun zuen Alziak: “Barkatuak zaudete”. “Eskerrak damutu dela”, esan zuen Alziak, oso kezkatu baitzegoen haien herio zigorrak zirela eta.

Handik puska batera eguzkipean zeharo lotan zegoen Iturri batera ailegatu ziren.

—Altxa zaitez, alfer hori! —agindu zion Erreginak—. Eta eraman ezazu neskatxa hau Dortoka Faltsua ikustera, bere historia ezagutu ahal izan dezan. Nik atzera itzuli behar dut agindu ditudan herio-zigorrak betetzen diren ikustera.

Erreginak alde egin zuen, Alizia Iturriarekin bakarrik utzita. Aliziari ez zitzaion batere gustatzen piztia haren itxura.

Iturria altxatu zen eta Erreginari begira gelditu zen begi bistatik galdu zuen arte; gero algara trufatsu bat egin zuen:

—Hau da, hau komeria!

—Zer da komeria dena? —itaundu zuen Aliziak.

—Bera —erantzun zuen Iturriak—. Dena fantasia hutsa baizik ez da. Ez dute inoiz inor hiltzen. Goazen!

“Hemen denek ematen dituzte aginduak”, pentsatu zuen Aliziak, gogoz kontra jarraitzen zion bitartean. “Nire bizitza guztian ez dut horrenbeste agindurik jaso!”

Oinez zihoazela urrutian, arroka baten gainean eserita, Dortoka Faltsua ikusi zuten, berarengana urreratzean haren hasperen larriak aditu zituen Aliziak. Eta arrunt errukitu zen.

—Zer gertatu zaio, ba? —itaundu zion Iturriari.

Eta Iturriak, lehengo eran erantzun zion:

—Dena bere fantasia hutsa baizik ez da.

Azkenean bertaraino heldu ziren. Dortoka Faltsuak malkoz betetako bere begitzarrez begiratu zien ezer esan gabe.

—Andereño honek —adierazi zion Iturriak—, zure historia ezagutu nahi du.

—Berehala kontatuko diot —esan zuen Dortoka Faltsuak ahots larri eta kexu batez—. Eseri biok eta isilik egon nik amaitu arte.

—Garai batean —esan zuen Dortoka Faltsuak, hasperen handi bat eginez—, ni benetako dortoka bat izan nintzen.

Isilune luze bat izan zen. Dortoka Faltsuak negar zotinka ziharduen, eta ostera hizketan hasi zen.

—Txikiak ginela —jarraitu zuen lasaiago—, itsasoko eskolara gindoazen. Maisua Galapago deitzen genion dortoka zahar bat zen.

—Zergatik deitzen zenioten Galapago galapago bat ez bazen? —galdegin zuen Aliziak.

—“Galanki” janzten zelako eta etxetzat “pago” bat zuelako deitzen genion Galapago — esplikatuz zuen Dortoka Faltsuak haserre—. Bai neskaxa tuntuna zarela!

—Lotsatu egin beharko zenuke zure ezjakintasunaz —erantsi zuen orduan, Iturriak.

Eta Dortoka Faltsuak honela jarraitu zuen:

—Bai, itsasoko eskolara gindoazen, nahiz eta zuk ez sinetsi...

—Nik ez dut sinesten esan ez dudarik! —moztu zuen Aliziak.

—Bai, hori esan duzu zuk —esan zuen Dortoka Faltsuak.

—Itxi ezazu aho hori! —erantsi zuen Iturriak, Alizari berriro hitz egiteko aukerarik eman gabe.

Eta Dortoka Faltsuak jarraitu egin zuen:

—Oso heziketa ona ematen zigun... Eskolara egunero joaten ginen...

—Ni ere egunero joaten naiz —esan zuen Aliziak—. Ez dakit zertaz harrotzen zaren.

—Klase bereziak, espezialak dituen eskola batera? —galdegin zuen Dortoka Faltsuak jakin minez.

—Bai —erantzun zion Aliziak—. Frantses eta musikarako klase aproposak ditugu.

—Eta garbiketa? —galdegin zuen Dortoka Faltsuak.

—Ez, horretarako ez! —protestatu zuen Aliziak, erremindurik.

—A orduan ez zoaz eskola on batera —esan zuen Dortoka Faltsuak lasaiturik—. Gure eskolan frantses, musika eta garbiketarako klase espezialak daude.

—Ez zitzaizun askorako balio izango —esan zuen Aliziak—, itsaso hondoan bizi izanda.

—Nik ez nuen hori ikasteko aukerarik izan —esan zuen Dortoka Faltsuak hasperen bat eginez—. Klase normaletara joaten nintzen bakarrik. Baina zu itsaso hondoan ez zarela sekulan bizi izan iruditzen zait... (“Noski ezetz”, esan zuen Aliziak) eta orduan ez duzu Otarrainarekin harremanik izan... (“Behin jaten...”, esaten hasi zen, baina garaiz isildu zen honela jarraitzeko: “Ez, inoiz ere ez”), hargatik ez duzu jakingo zein polita den Otarrainaren Dantza.

—Ez —onartu zuen Aliziak—. Zer dantza era da hori?

—Begira —esan zuen Iturriak—lehenbizi hondartza luzera guztian lerro bat osatzen da...

—Bi lerro! —oihukatu zuen Dortoka Faltsuak—. Fokak, dortokak eta beste guztiak daudela. Orduan, marmota guztiak erditik kendu direnean...

—Denbora asko darama lan horrek —moztu zuen Iturriak.

—... aurrera bi pausu eman behar dira...

—Bakoitza otarrain batekin dagoela! —oihu egin zuen Iturriak.

—Noski —esan zuen Dortoka Faltsuak—. Aurrera bi urrats egin, bikotea osatu...

—... otarrainez aldatu, eta ordena berdinean atzera itzuli —jarraitu zuen Iturriak.

—Orduan —segitu zuen Dortoka Faltsuak—, bota egiten dira...

—Otarrainek! —oihu egin zuen Iturriak alaitu, airean jauzi bat emanez.

—... ahal den urrutien itsasoan barrena...

—Eta beraien atzetik igerian! —oihukatu zuen osteria Iturriak.

—Itsasoan salto handi bat ematen da! —esan zuen Dortoka Faltsuak.

—Otarrainek aldatzen da osteria ere! —aurrera egin zuen Iturriak.

—Hondartzara itzultzen da, eta... hementxe amaitzen da lehenengo irudia —esan zuen Dortoka Faltsuak ahotsa ahultzen zitzaion bitartean.

—Oso dantza polita izan behar du —esan zuen Aliziak beldurti.

—Ikusi nahiko zenuke nola dantzatzen den? —proposatu zion Dortoka Faltsuak.

—Noski, asko gustatuko litzaidake —esan zuen Aliziak.

—Ea, lehenengo irudia egiten asmatzen dugun —esan zion Dortoka Faltsuak Iturriari—.

Otarrainik gabe egin genezake, ez da? Nork kantatuko du?

—Kanta ezazu zuk —esan zuen Iturriak—. Nik letra ahaztua daukat.

Dotoreki dantzatu zuten Alizia inguratuz Otarrain Dantzaren lehen irudia osatu arte.

—Eskerrik asko. Oso dantza interesgarria da —esan zuen Aliziak.

—Orain —esan zuen Iturriak Aliziarengana zuzenduz—, kontatu itzazu zure abenturak.

—Gaur goizetik orain arte gertatutakoak konta ditzaket —esan zuen Aliziak—. Baina atzokoak kontatzea ez du merezi, atzo ni beste pertsona bat bainintzen.

—Esplikatu hori dena —esan zuen Dortoka Faltsuak.

—Ez, ez! Lehenbizi abenturak —oihukatu zuen Iturriak, geldirik egon ezinik—, esplikazioak denbora gehiegi galdu arazten du.

Horrela bada, Aliziak Untxi Txuria ezagutu zuenetik hasi eta gertatutako guztia zehatz mehatz kontatzen ari zitzaien. Beldarrarekin topatu zeneko gertakizunetara iritsi zenean, ordea, Dortoka Faltsuak hasperen bat eginez esan zuen:

—Oso harrigarria da hori dena. Baina zertarako balio zaigu historia hori? Ez baitu ez buru eta ez hankarik ere!

—Bertan behera uzten baduzu hobe —esan zuen orduan Iturriak.

Eta Aliziak oso pozik utzi zion kontatzeari.

—Otarrain Dantzaren beste irudi bat osatzen saiatuko al gara? —jarraitu zuen Iturriak—. Ala nahiago zenuke Dortoka Faltsuak beste kanta bat abestea.

—Bai beste kanta bat, faborez! —oihukatu zuen Aliziak.

—Nahi al diozu kantatu bada, ene Dortoka Faltsua? —marmartu zuen Iturriak.

Dortoka Faltsuak hasperen handi bat egin zuen eta negar zotinen artean kantatzen hasi zen:

Zopa eder, zopontzian zopa-ontzian

horren goxo eta orlegia.

Bikain eta atsegingarria

Gau-zopa, zopa bizia!

Zooooopa Zoooooragarria!

Zooooopa Zoooooragarria!

Gaurko zooooopa!

Zopa oooona!

—Kanta ezazu bigarren leloa! —oihu egin zuen Iturriak.

Eta Dortoka Faltsua bigarren leloari hasiera ematen ari zitzaion urrutian oihu bat aditu zenean
“Epaiketa hastera doa!”

—Goazen! —esan zuen Iturriak.

Eta Aliziari eskutik helduz korrika hasi zen, kanta bukatzeari itxoin gabe.

—Zer epaiketa da hori? —itaundu zuen Aliziak, korrika zihoan bitartean.

Baina Iturriak hauxe bakarrik erantzun zion: “Goazen!”, eta presakago korritzen jarraitu zuen.

Dortoka Faltsuaren hitz melankoniatsuak gero eta motelago aditzen ziren:

Gaurko zooooopa!

Zopa oooona!

10. TARTAK NORK LAPURTU ZITUEN

Ailegatu zirenean, Bihotzen Errege eta Erregina beren tronuetan eserita zeuden, eta beren inguruan jendetza ikaragarria bildua zen: txori eta piztia mota guztietatik eta karta multzo osoa ere bai, noski. Beren aurrean zutik Baleta kateaturik, gudari bat alde bakoitzean zaindari zuelarik. Errege ondoan Untxi Txuria, turuta bat esku batean eta pergamino bat bestean zituela. Gela erdi erdian eta mahai baten gainean tartak.

—Hura jueza izango da —esan zuen berarekiko Aliziak—, ileorde handi hori daramalako hain zuzen.

Izan ere, jueza Errege bera zen; ileorde gainean koroa baitzeraman.

Eta hura epaimahaikoen oholtza da —pentsatu zuen Aliziak—, eta hamabi lagun horiek epaimahaiko epaileak izango dira seguru aski.

Hamabiak jotake ari ziren arbeletan idazten.

—Zertan ari dira? —galdegin zion Aliziak Iturriari—. Epaiketa hasi baino lehenagotik ez dute ezer idaztekorik izango, ba?

—Piztitxo inozoak! —hasi zen Alizia ozenki esaten.

Baina Untxi Txuriaren oihuak entzutean berehala isildu zen: “Ixo denak! Areto barruan isiltasuna!”

Epaimahaikide guztiak arbeletan “Piztitxo inozoak!” idazten ari zirela ikusi ahal izan zuen Aliziak, ohartu zen ere beraietako batek ez zekiela “piztitxo” nola idazten zen, eta aldamenekoari galdetu ziola. “A zer nolako nahasketak eta zirriborroak egingo dituzten epaiketa amaitu baino lehen!”, pensatu zuen Aliziak.

—Aldarrikari, salaketa irakur ezazu! —esan zuen Erregek.

Eta orduan Untxi Txuriak turuta hiru aldiz jo ondoren, pergaminoa zabaldu eta hitzok irakurri zituen:

Udarako egun batez
Erreginak hiru tarta egin zituen,
Baletak ikusi ondoren
lapurretan egin zuen.

—Errua aztertu eta erabaki bat har! —esan zien Erregek epaimahaikoei.

—Oraindik ez! Oraindik ez! —moztu zion presaka Untxiak—. Lehenbizi beste gauza asko egin behar dira!

—Hots egiozu lehenbiziko lekukoari —esan zuen Erregek.

Untxiak turutat hiru joaldi motz egin ondotik oihu egin zuen:

—Lehenengo lekukoa!

Lehenengo lekukoa Kapelagilea zen. Esku batean te katilukada batez eta bestean ogi zati bat zuela agertu zen bertara.

—Otoi, barka nazazu, Maiestate —hasi zen—, gauza hauek eskutan ekartzeagatik, baina auzitegirako dei egin didatenean tea hartzeko nuen oraindik.

—Bukatua eduki behar zenuke —esan zion Erregek—. Noiz hasi zinen tea hartzen?

Kapelagileak Muxarrarekin batera bertaraino segitu zion Martxoko Erbiari begiratu zion.

—Martxoko hamalauan izan zela uste dut.

—Hamabostean —esan zuen Martxoko Erbiak bere jarlekutik.

—Hamaseian —zuzendu nahi izan zuen Muxarrak.

—Hau dena idatzi —agindu zien Erregek epaimahaikoei.

—Kendu ezazu kapela—agindu zion Erregek Kapelagileari.

—Ez da nirea, Maiestate —esan zuen Kapelagileak.

—Orduan Kapela lapurtua duzu! —oihu egin zuen Erregek, epaimahaikoengana biratuz—.

Epaimahaikoek berehalaxe idatzi zuten hura arbeletan.

—Saltzeko ditut —erantsi zuen Kapelagileak—. Ni Kapelagilea naiz.

Une honetan Erreginak betaurrekoak begietan jarri zituen eta Kapelagilea goitik behera aztertzen hasi zen. Kapelagilea dardarka zegoen.

—Aitortu ezazu aitortu behar duzun oro —esan zuen Erregek—, eta ez zaitez nerbioso jarri, bestela zure lepoa moztea aginduko dut bertan behera.

Baina alferrik, lehen bezain urduri zegoen, eta halako batean katiluari kosk egin zion ogiari egin beharrean.

Une honetan, Aliziak gauza arraro bat nabaritu zuen: berriro hazten ari zen. Hasieran handik aldegitia pentsatu zuen, baina gero bertan gelditzea erabaki zuen, tamainak hartara uzten zion arte behintzat.

—Ez nazazu gehiago bultza, faborez —esan zion bere ondoan eserita zegoen Muxarrak—. Ia ez nauzu arnasa hartzen uzten.

—Ezin dut bultza gabe egon —erantzun zuen lainoki Aliziak—. Hazten ari naiz.

—Ez duzu hazteko eskubiderik —esan zion Muxarrak.

—Ez dezazula tontakeriarik esan —erantzun zion gogorki Aliziak—. Zu ere hazi egiten ari zara, ez da?

—Bai, baina ni pixkanaka hazten naiz —esan zuen Muxarrak—, ez zu bezalako era lotsagarri horretan.

Altxa eta aretoko beste muturrera alde egin zuen Muxarrak.

Denbora honetan guztian Erreginak ez zizkion Kapelagileari begiak gainetik kendu, eta, bat-batean gorteko etxezainei agindu zien:

—Ekarri azken kontzertuko kantari zerrenda.

Kapelagilea gero eta dardaratsuago zen.

—Esan ezazu lehenbailehen aitortu behar duzuna —errepikatu zuen Erregek haserre—, edo bestela badakizu, lepoa moztu!

—Gizagaixo bat naiz, Maiestate —hasi zen esaten ahots ikaratsu batez— ... eta oraindik tea hartzen hasi gabe nintzen... astebetea ez du egiten... eta gurinez jarritako ogi zatiak gero eta meheagoak egiten ziren... eta tearen titileoa...

—Zeren titileoa? —galdegin zuen Erregek.

—Titileoa tearekin hasi zen —erantzun zuen Kapelagileak.

—Titileo hitza T-z hasten dela esan nahiko duzu, noski! —esan zuen Erregek lazki—. Ortografiarik ez dakidala uste al duzu? Segi!

—Gizon gizagaixo bat naiz —jarraitu zuen Kapelagileak— ...eta beste gauzak ere tiltilka hasi ziren... baina Martxoko Erbiak esan zuen...

—Nik ez nuen hori esan! —aurreratu zuen Martxoko Erbiak.

—Bai, hori esan zenuen! —oihukatu zuen Kapelagileak.

—Berak ukatu egiten du —esan zuen Erregek—. Ezabatu azkeneko parte hau.

—Nolanahi ere, Muxarrak esan zuen... —jarraitu zuen Kapelagileak, eta bere ingurura begiratu zuen, ea Muxarra han ikusten zuen, baina Muxarrak ez zion ezer ukatu lotan baitzegoen—. Honen ondoren ogi gehiago hartu nuen...

—Baina zer arraio esan zuen Muxarrak? —galdegin zuen epaimahaikide batek.

—Horretaz ez naiz gogoratzen —esan zuen Kapelagileak.

—Gogoratu beharko duzu ba —esan zuen Erregek—, bestela zu hil araztera behartua aurkituko nauzu.

Kapelagileari katilua eta ogia lurrera erori zitzaizkion bera belauniko jartzen zen bitartean.

—Gizon gizagaixo bat nauzu, Maiestate —hasi zen oster.

—Hori, eta hizlari gizagaixoagoa oraindik —esan zuen erdi isekaz Erregek—. Asunto honetaz besterik ez badakizu jaitsi zaitez oholtzatik.

—Ezin naiz beherago jaitsi —esan zuen Kapelagileak—, lurrean nago eta.

—Orduan bertan eseri —gaineratu zuen Erregek.

—Nahiago nuke tea bukatzerik banu —esan zuen Kapelagileak, Erreginari izuturik begiratzuz.

—Zoaz ba! —esan zion Erregek.

Eta Kapelagileak tximista bezain azkar alde egin zuen auzitegitik.

—Irtetean lepoa moztu diezaiotela! —erantsi zuen Erreginak, ethezain bat atzetik bidaliz.

Baina ethezaina aretoko atera heldu zenerako ez zegoen Kapelagilearen arrastorik.

—Hots egin hurrengo lekukoari! —esan zuen Erregek.

Eta hurrengoa Dukesaren sukaldaria zen. Piperbeltz potoa eskutan zekarren, Aliziak lehenagotik bazekien bera zela, ate ondoan zegoen jendea usainka hasia baitzen piperbeltzaren eraginez.

—Esan ezazu aitortzeko duzuna —agindu zion Erregek.

—Ezta pentsatu ere —esan zuen sukaldariak.

Erregek Untxi Txuriari begiratu zion harriturik, eta honek emeki-emeki esan zuen:

—Maiestate, lekuko hau zehazki aztertu behar duzu.

—Beno, horrela egingo dut —etsi zuen Erregek, eta sukaldariari begitara so eginaz, ahots sendo batez galdegin zion—. Zerez egiten dira tartak?

—Batez ere piperbeltzez —erantzun zuen sukaldariak.

—Ezti-hondarrez —esan zuen atzetik ahots logaletsu batek.

—Atxilotu Muxarra hori! —oihukatu zuen Erreginak—. Hil ezazue Muxarra hori! Bota ezazue areto honetatik! Zigortu! Atximurkatu! Biboteak kendu!

Minutu batzuetan, Muxarra handik bota bitartean, nahaspila handia izan zen, eta, denak beren lekuetara itzuli zirenerako sukaldaria ez zegoen han.

—Ez du axolarik! —esan zuen Erregek, lasai asko—. Hots egin hurrenari. —Eta Erreginari ahots motelez honela erantsi zion— Orain, hurrengo lekukoa zuk galdegin beharko zenuke. Gauzok buruko mina sortarazten didate!

Aliziak Untxi Txuria bere zerrenda begiratzen ari zela ikusi zuen, eta bere baitarako hurrengo lekukoa zein izango ote zen galdezka ziharduen. “Izan ere, orain arte ezer gutxi argitu baita”, esan zuen bere golkorako. Pentsa ezazue nolakoa izango zen haren harridura Untxi Txuriak bere izena irakurri zuenean:

—Alizia!

11. ALIZIAREN AITORMENA

—Hemen nago! —oihukatu zuen Aliziak.

Eta azkeneko minututan zenbat hazi zen ahantzirik, zutik jarri zen epaimahaiaren oholtza gonarekin bultzatuz, eta epaimahaiko denak hankaz gora erori ziren publikoaren gainera.

—O, barka nazazue! —esan zuen, estuturik.

Eta bana banaka altxatzen ahalegindu zen.

—Epaiketa honek ezin du aurrera jarraitu —esan zuen Erregek—, epaimahaiko lagun guztiak beren lekutan ez dauden artean... epaimahaiko lagun guztiak... —errepikatu zuen, Aliziari zorrozki begiratzen zion bitartean.

Epaileak berriro beren onera etorri zirenean, eta bakoitzak beren arbelak eta klarionak aurkitu zituztenean, denak ezbehar haren zehaztasunak idazten hasi ziren. Sugandila ez ezik beste denak hasi ziren noski, berau oso hunkitua baitzegoen gelako sabaira begira aho zabalik.

—Zer dakizu zuk arazo honetaz? —itaundu zion Erregek Aliziari.

—Ezer ez —erantzun zuen Aliziak.

—Ezertxo ere ez? —ekin zion Erregek.

—Deus ere ez —ziurtatu zuen Aliziak.

—Hau garrantzi handikoa da —esan zuen Erregek, epaileei begiratzuz.

Epaimahaiko lagunak arbelean idazten ari ziren Untxi Txuriak parte hartu zuenean:

—Noski, Maiestate, zerorrek garrantzi gutxikoa zela adierazi nahi zenuen —esan zuen begirune

handiz.

—Garrantzi gutxikoa esan nahi nuen, noski —zuzendu zuen Erregek.

Epaimahaiko batzuek arbelean “garrantzi handia” idatzi zuten, eta beste batzuek “garrantzi gutxikoa”. Aliziak aurre aurrean zegoelako irakurri ahal izan zuen haien arbeletan.

Une honetan, Erregek bere liburuxkan zerbait idazten oso lanpetua egon ondoren, oihu egin zuen: “Isildu!”, eta bere liburuxkatik irakurri zuen:

—Berrogeita bigarren artikulua: kilometro bat baino gehiago neurtzen duen edonork aretotik kanpora alde egin behar du.

Guztiok Aliziari begiratu zioten.

—Nik ez dut kilometro bat neurtzen —protestatu zuen Aliziak.

—Bai, neurtzen duzu —esan zuen Erregek.

—Ia bi kilometro neurtzen dituzu —erantsi zuen Erreginak.

—Dena den, ez dut hemendik mugitzeko asmorik —ziurtatu zuen Aliziak—. Gainera artikulua horrek ez du balio: zerorrek asmatu baituzu oraintxe.

—Hau liburuko artikulurik zaharrena da —esan zuen Erregek.

—Horrela balitz, lehenengo zenbakia eduki beharko luke —esan zuen Aliziak.

Erregeren aurpegia zurbildu egin zen, eta liburuxka bertan behera itxi zuen.

—Zuen erabakia eman dezakezue! —agindu zien epaimahaikoei, ahots motel eta dardaratsuz.

—Oraindik frogantza asko falta dira, Maiestate —esan zuen Untxi Txuriak, zutiturik—. Paper hau orain dela denbora gutxi aurkitua da.

—Zer dio paper horrek? —galdegin zuen Erreginak.

—Oraindik ez dut zabaldu —erantzun zuen Untxi Txuriak—, baina badirudi eskutitz bat dela presoak norbaiti idatzia.

—Norentzat dago idatzia? —itaundu zuen epaimahaiko lagun batek.

—Ez dago inori zuzendua —esan zuen Untxi Txuriak—. Kanpo aldean ez du ezer jartzen. Eta papera zabaldu zuenean esan zuen:

—Egia esateko, ez da gutun bat; bertso sail bat da.

—Salatuaren idazkera al da hori? —galdegin zuen epaimahaiko beste batek.

—Ez, ez da bere idazkera —esan zuen Untxi Txuriak—, eta horixe da harrigarriena. (Epaimahaiko lagun guztiak ere harrituta gelditu ziren.)

—Beste pertsona baten idazkera erabiliko zuen —esan zuen Erregek.

—Zure baimenaz Maiestate —esan zuen Baletak—, nik ez dut paper hori idatzi, eta inork ezin dezake esan nik idatzi dudala bukaeran izenperik ez dagoelako.

—Izenpea egin ez baduzu —esan zuen Erregek—, zuretzat hainbat okerrago, horrela zure errua larriagoa baita.

Txalo beroak aditu ziren auzitegian hitzok esanda gero.

—Honek bere erruduntasuna frogatzen du —oihukatu zuen Erreginak—. Horregatik lepoa...

—Honek ez du ezer frogatzen! —protestatu zuen Aliziak—. Oraindik ez dakigu paper horretan zer dagoen idatzia ere!

—Irakur ezazu! —agindu zion Erregek Untxi Txuriari.

Untxi Txuriak betaurrekoak jarri zituen.

—Nondik hasi behar dut? —itaundu zuen.

—Hasieratik hasi eta amaitu arte ez gelditu.

Aretoan izugarrizko isiltasuna zegoen, Untxi Txuriak bertsoak irakurtzen zituen bitartean:

Ikustera joan omen zinen
eta nitaz hitz egin omen zenion ere:
Igerian ikasi ez banuen
nire izaera onartu zuen.
Berak esana, ni ez nintzela
(denok dakigu egia dela?):
ahaleginduko balitz bera
badakizu zer bait jazo litekeela?
Nik bat eman, haiek hiru,
zuk guri hiru ala gehiago eman,
denak zuregana itzul,
lehen nireak zirenak.
Elkar ikusten badugu
nahaspila honetan nahastuak,
zuk libera gaitzazu
gaitezen lehen bezalakoak.
Zu izan zinen orduan
(haren eromen-aldian)

bion arteko sortua
merezitutako auzia.
Ez dezala berak jakin
haren maite min handia,
bion artean gorderik dadin
gure sekretu larria.

—Hau da lortu dugun frogantzarik handiena! —esan zuen Erregek, eskuak igurtziz—. Horrela bada, epaimahaiak delibera dezala!

—Ni sinestsia nago bertsook ez dutela ez hanka eta ez bururik ere —esan zuen Aliziak batere beldurrik gabe Erregeren aurre aurrean jarrita (dagonekoz horrenbeste handitu zen).

—Poemak zentzurik ez badu —esan zuen Erregek—, lana erraztu egingo zaigu.

Hala ere, paperari begira segitu zuen eta hitz haiek aztertzen ahalegindu zen, baina Aliziak arrazoinamendu guztiak galarazten zizkion. Eta azkenean:

—Epaimahaiak erabaki dezala auzia! —agindu zuen.

—Ez! Ez! —protestatu zuen Erreginak—. Lehenbizi sententzia...

—Hori bai dela inozokeria! —esan zuen ozenki asko Aliziak—. Hori bai dela, lehenbizi sententzia eskatzea!

—Itxi ezazu aho hori! —oihukatu zuen Erreginak, sutan zegoela.

—Ez dut nahi —esan zuen Aliziak.

—Lepoa moztu diezaiotela! —oihukatu zuen Erreginak, erdi erotua.

Ez zen inor mugitu ere egin.

—Nork egingo dizu kasu ba? —esan zuen Aliziak (ordurako bere betiko luzera bazuen)—. Karta multzo bat baizik ez zarete eta!

Hau entzutean karta guztiak goraka jauzi ziren, ostera Aliziaren burura eroriaz. Aliziak oihu txiki bat egin zuen, erdi beldurtua alde batetik, eta bestetik karta guztiak gainera erori zitzaizkiolako erdi haserre... Eta ibai ertzean etzanda aurkitu zen, burua bere ahizparen gona gainean zuelarik. Ahizpak bere aurpegira erortzen ziren orbelak kentzen ziharduen artean.

—Esnatu, Alizia! —esan zion, ahizpak—. Zenbat lo egin duzun!

—O, oso amets harrigarria egin dut! —esan zuen Aliziak.

Eta gogoratzen zuen guztia ahizpari kontatu zion. Amaitu zuenean, bere ahizpak musu bat eman zion esanaz:

—Hala da, oso amets harrigarria egin duzu. Baina berandu egiten ari da. Zoaz orain korrika meriendatzera. Horrela bada, Aliziak altxa eta korrika alde egin zuen handik, eta etxerantz zihoan bitartean ametsetako gertakizunak gogoratzen jarraitu zuen.